Egiletza: Anai Artea
Liburu hau egiten parte hartu dute: Luis Barriola, Battita Larzabal, Mixel Mendiboure, Leire Mendiburu, Urtxoa Parot, Mirentxu Purroy, Panpi Zamora.
Azaleko argazkia: Imanol Amas
Eskerrak Musikene-ri argazkia ateratzeko emandako laguntzagatik
Maketazioa: Harman Komunikazioa

ISBN: 978-2-9507461-1-5

Aurkibidea

Prólogo de Anai Artea 9
Txiberta 1977: la ruptura histórica. Anai Artea 11
Antes de las conversaciones de Txiberta. Telésforo Monzón (publicado en *Enbata*) 19
Las actas de Txiberta. Mirentxu Purroy 21
Participantes 25
Las intervenciones recogidas en acta. Documento original 29
Las conversaciones de Chiberta. Síntesis de las reuniones (publicado en *Punto y Hora*) 59
Epílogo: un testimonio 69

Anai Artearen aitzinsolasa 73
Xiberta 1977: haustura historikoa. Anai Artea 75
Xibertako bilkuren aitzinetik. Telesforo Monzon (*Enbata*-n argitaratua) 83
Xibertako aktak. Mirentxu Purroy 85
Parte-hartzaileak 89
Aktak: bileretan esanak 93
Xibertako elkarrizketak. Bileren laburpena (*Punto y Hora*-n argitaratua) 123
Epilogoa: lekukotza bat 133

Prologue d'Anai Artea 137
Chiberta 1977: la cassure historique. Anai Artea 139
Avant les entretiens de Chiberta. Telesforo Monzon (publié à *Enbata*) 147
Les actes de Chiberta. Mirentxu Purroy 149
Les paticipants 153
Les interventions reprises en acte 157
Les conversations de Chiberta. Synthèse des réunions (publié à *Punto y Hora*) 189
Épilogue: un témoignage 199

---

*Punto y Hora*n argitaratutako Xibertako akten laburpena 203

Xiberta 1977: Haustura historikoa

Zergatik itzuli 1977ra, 1981ean zendu zen Telesforo Monzonen heriotzaren 30. urteurrenean? 1977ko udaberrian, Angeluko Xiberta hotelean, Franco hil ondorengo mugimendu abertzalearen osagarri guztiak biltzea lortu baitzuen Telesforo Monzonek, hasi ETA Militarretik eta EAJ-PNVraino. Monzonen iritziz, nahitaezkoa zen indar guztiek bloke bat eratzea, frankismoaren ondorengo zen Madrilgo botereari herriaren eskakizunak galdatzeko. Saiakera hark ez zuen emaitzarik eman, baina bakoitza bere erantzukizunen aitzinean kokatu zuen. Horrela, euskal mugimendu politikoak bi bide hartu zituen, diametralki ia aurkakoak.

2011ko udaberrian, Monzon zendu eta hogeita hamar urte geroago, ETAk bere autodesegiteari ekin dio nazioartearen kontrolpean, eta ezker abertzalea inoiz baino indartsuago jalgi da udal-hauteskundeetan: Franco hil ondoren ere konpondu ez ziren sakoneko arazoen aurrean aukera berriak sortu dira. Inportantea da jakitea zergatik, nork eta nola.

Frankismoaren ondorengo Historiari ekarpena

Xibertara itzultzea frankismoaren ondorengo historiografiari eginiko ekarpen xumea baino ez da, urte batzuetatik hona berritzen ari den historiografia, eta egungo Espainiako demokraziaren sorreraren ikuspegi mitikoa emeki-emeki zuzendu nahi duena.

Aitzitik, hasieran «trantsizio demokratikoa» edo Trantsizioa izendatu zena berrikusi behar da, zeren luzaz eman den irudi indartsu hori, trantsizio horren aktoreek berek emana baitute. Eta noski, haien ustez, prozesu hori erabat eredugarria da.

Baina iragana atseginik gabe ikertzen duten historialarien iritziz, Francoren oinordeko goiargituenek inposatu zieten Trantsizioa diktadorearen biktimei, euren funtsezko eskakizun zenbaiti uko eginaraziz.

Alabaina, 40 urtez iraun zuen diktatura eroraraztetik urrun zeuden. Lehenik, Estatu Espainolaren kanpoan eta barnean iraun zuen oposizioak Errepublikari uko egin behar izan zion, haren oinordeko izateko Francok berrezarri zuen monarkiaren mesedetan. Ondoren, Estatuko nazioaniztasunari ere uko egin behar izan zion, nahiz eta bere planen barnean zegoen. Eta Gerra

Zibileko krimenen amnistia ere sinatu behar izan zuen, 1977an. Gerora, 2008an, ONUko Giza Eskubideen Batzordeak lege hori ezeztatzea eskatu zuen nazioarteko zuzenbidearen aurkakoa izateagatik, izan ere, amnistia- eta preskripzio-neurriak baztertzen baitzituen bortxazko desagertzeen, torturen eta humanitatearen aurkako krimenen kasuan. Azken finean, borrero eta biktimak bizkarrez bizkar eman ziren eta frankismoaren oinordekoak legitimatu ziren haien aurka borrokatu zirenen kaltetan.

Xiberta euskal historiografian

Trantsizioaren ingurumari horretan gertatu ziren Xibertako elkarrizketak. Monzonek antolatu zituen, jakinik euskal mundu politikoko bi norabideak hurbiltzeko azken saiakera zela: batetik, EAJ-PNV historikoa, gerra zibilean Euskadi zuzendu zuena, Madrilengandik bereizia eta praktikan independentea, bere armada, bere moneta, bere diplomaziarekin, eta bestetik, hamabost urte lehenagotik, borroka soziala, propaganda politikoa eta borroka armatuaren bidez frankismoaren aurka egiten ari zena, elementurik ezagunenak ETAren bi adarrak zituen sare bat: ETA Militarra edo ETA (m) eta ETA Politiko-Militarra edo ETA (pm).

Monzonen ustez, bi joera horiek, «jelkidetasuna» (EAJ-PNVren aldekoak) eta «etismoa» (independentziaren aldekoak, ETA eta bere inguruko mugimendu guztiak) ez ziren bateraezinak. Haren ustez, Estatu frankistaren biolentziaren aurka altxatu zirenek 36ko EAJ-PNVko gudarien borroka segitzen zuten, haien seme-alabak ziren. Frankoren oinordekoen aurkako batasuna behar-beharrezkoa eta presakoa zela uste zuen «etxearen» zimenduak segurtatuak izateko, hau da, Nafarroa barne hartuko zukeen eta, autodeterminazio eskubideaz baliatuz, demokratikoki eta era baketsuan independentziarantz jo ahal izango zukeen Euskal Herria.

Horrela, 1977ko maiatza hasieran, berehalako helburua euskal familia politikoaren kide barreiatuak biltzea zen. Denek erantzun zuten, baina denak ere beren iraganaren zama bizkarrean eta berehalako eskakizunak ahoan bildu ziren Xibertara.

Hausturaren eta erreformaren arteko hautua

EAJ-PNV, frankismoko azken urteetan politika erasokorra izan zuena, PSOE ardatz zuen «Plataforma de Convergencia Democrática» delakora atxiki zen 1975eko ekainean. Estatu espainiarrean naziotasun eta nortasun etnikoko erregioak bazeudela jakinik, plataforma horrek Estatuko nazionalitateen autodeterminaziorako eta autogobernu-organoak eratzeko eskubidea aitortzen zien haustura demokratikoa gertatuko zen unetik. Espainiako Estatuaren Konstituzio federala egiteko engaiamendua zen. Baina, 1975eko ekaina eta 1977ko apirilaren 7a bitartean (Espainiako Alderdi Komunista legeztatu zen eguna), «haustura adostua» delakotik (ruptura pactada) oposizioko alderdi handien arteko «erreforma adostua» delakora (reforma pactada) pasa ziren PSOE eta frankismoaren oinordekoak, «Movimiento» delakoaren buruzagi izandako Adolfo Suarez gidari zutela.

PSOEk, 1974ko Suresneseko kongresuaz geroztik Felipe Gonzalezen ekipoak zuzenduak, erreformaren alde egin zuen. Suarezekin adosturik, 1976ko abenduan bere 27. Kongresua antolatu zuen Madrilen. Gertakari hori enblematikoa izan zen Ekialdea-Mendebaldea gataz-kak menderaturiko munduan, Olof Palme, Mitterrand, Soares, Nenni eta, batez ere, Willy

Brand bezalako buruzagi sozialista handiak bertaratu baitziren. PSOEk bere irudi atlantista zaindu zuen eta bere atzerriko finantzamendua segurtatu, batez ere, Willy Branden SPDren bidez. Era berean, Suarezen politika erreformista legitimatu zuen.

Bestalde, PCE, eurokomunista bilakatua, Suarezek arrapaladan aitortu zuen 1977rako aurreikusitako hauteskundeetan parte hartzeko, Francoren oinordekoek ezarritako mugak zituen demokrazia bitxi horren baitan, herritarrek libreki boza eman baino lehen. Bere printzipioen aurka, erreforman sartzeko eskubidea ordaindu zuen PCEk: errepublikari uko egitea, Estatu bateratua onartzea, Francoren oinordeko zen monarkia eta bere sinbolo guztiak onartzea, biolentzia kondenatzea… Jada Xibertaren garaian legezkoa zen EAJ-PNVrentzat, eta beste guztientzat, hauteskundeetan parte hartzea «erreforma adostua»ri abala ematea zen.

EAJ-PNVtik kanpoko mundu politiko abertzalea osatzen zutenek, ezkerrekoek, haustura egiten ziharduten azken 15 urteetan. Errepresio salbaia, milaka atxiloketa, salbuespen egoera, heriotza zigor, exekuzio, eta abarren ondorioz, jomugadun ehunka atentatu, hildakoak eragin zein ez, grebak, manifestazioak… Talde horietako engaiatuenak Koordinadora Abertzale Sozialistan (KAS) bildu ziren, eta ez haiek ez eta ETA (m)-k eta ETA (pm)-k ez zuten Caudilloaren oinordekoekin «erreforma adostua» bat egin nahi, batetik, «erreforma» hori ez baitzen bateragarria KAS alternatibaren funtsezko zenbait punturekin: amnistia osoa, alderdi gisa antolatzeko askatasun osoa estatutuak inongo autoritateren pean ezarri beharrik gabe, edo Euskal Herriaren subiranotasun eta autodeterminazio eskubidea aitortzea, kasu, eta bestetik, nahiz eta Suarezek erreformak egin, Estatu frankistaren biolentziak bere horretan segitzen zuenez, alderdiak ezin baitziren libreki eratu eta, hain justu ere ETAko presoak, terrorista gisa sailkatuak, ez baitzituzten amnistiatu.

Haustura

Xibertako elkarrizketak hasi baino lehen, Madrilek bere funtsezko helburuak lortuak zituela argi dago. PSOE eta PC «erreforma adostua» delakoaren baitan bilduta, Kataluniako indar politiko nagusiak bezala, partida ia irabazia zuen Estatu mailan. Suarezentzat, plusa Euskal Herriko indarrak zatitzea zen une hartan, Estatuaren puntu neuralgikoa baitzen.

Jakina zen abertzale guztiek hauteskundeak boikotatzeak eragin esanguratsua izan zezakeela Madrilentzat, baina dudarik ez zen era berean, horrela sortutako hutsunea arerio politikoek baliatuko zutela.

Borroka elektorala besterik aurreikusten ez zuen EAJ-PNVrentzat, hauteskundeetan ez parte hartzea sakrifizioa baino gehiago zen; egin ezin zuen ekintza politikoa zen. Xibertan izan zuen jarrerak argi utzi zuen hori, bere aukera argia, garbia eta behin betikoa zen: hauteskundeetan parte hartuko zuen. Hori horrela izanik, elkarrekin boikota egitea ezinezkoa zen eta, horren ondorioz, gainerako abertzaleengandik (geroago Herri Batasuna osatuko zutenak, ETAren bi adarrak eta Alkateen ordezkariak) bereizi ziren. Izan ere, hauteskundeak batasuna bazegoen soilik boikotatzeko agindua zuten talde horien ordezkariek. Baina, hortik aurrera, zalantzarik gabe haustura gertatua zen, batetik EAJ-PNV eta bestetik EHAS eta ETA (m)-ren artean; azken hauek, Xibertako elkarrizketetan, denentzako amnistia eta alderdi politikoak eratzeko askatasun osoa eskuratzearen menpe ezarri baitzuten hauteskundeetan parte hartzea.

Azken finean, Xibertako elkarrizketak amaituta, EAJ-PNVk «erreforma adostua»ren aldeko hautua egina zuen. EHASek eta ETA (m)-k, eta ETA (pm)-ren zatiketatik sortutako «Bereziak» taldeko kideak bertan zirela, «haustura»rekin jarraitzeko asmoa agertu zuten, eta ezkerreko zenbait alderdi zalantzan zegoen. Monzonek aitortu zuen porrot egin zuela. Ezin izan zuen haustura historikoa ekidin.

1977ko ekainaren 5eko hauteskundeak

1977ko ekainaren 15eko hauteskundeak Suarezen lehen Gobernuak antolatu zituen. Gobernu horretako 16 kideetatik 14 frankismotik etorriak ziren, Estatuko idazkari ohiak, administrazio zentraleko edo Estatuaren konpainietako zuzendari orokorrak, eta baita «movimiento»ren arduradun ohiak ere, Suarez bera bezala.

Euskal Herrian sortu ziren aliantzek erakusten dute indar politiko abertzaleak sakabanatuak zeudela.

EAJ-PNV bakarrik aurkeztu zen Gorteetako hauteskundeetara, baina argi zegoen PSOErekin zenbaketa prestatua zuela, izan ere, bi alderdiek independenteekin fronte autonomista eratu baitzuten Senatuko hauteskundeetarako. Horrek, ondotik, Xibertan izan zuen jarrera argitu zuen. Alta, Nafarroan, ESB eta EAE-ANVrekin egin zuen bat Union Autonomista de Navarran.

Ezker abertzalea sakabanatuta aurkeztu zen. Legezko ziren ANVk, ESBk, ESEIk, eta Euskadiko Ezkerra koalizioan MCErekin bat egin zuen EIAk parte hartu zuten. EHASek galdeketa boikotatu zuen.

Zenbaketaren ondotik, zenbait ohar egitea nahitaezkoa da.

Lau euskal probintzietan, Gorteetarako 8 diputatu atera zituen EAJ-PNVk, eta PSOEk eta UCDk aurrea hartu zioten hamarna aterata. Alianza Popularrek eta Euskadiko Ezkerrak diputatu bana atera zuten. Beraz, PNV + PSOE fronte autonomistarentzat abantaila.

Senaturako bete beharreko 16 aulkietatik 4 eskuratu zituen EAJ-PNVk, 3 PSOEk, 6 UCDk, 1 ESEIk, 1 EEk. Independenteek ere 1 eskuratu zuten.

Hala ere, 1936 baino lehenagoko lurralde autonomoen arabera kalkulatuz gero, Euskadin EAJ-PNV buruan ageri zen, baina, Nafarroan, UCDk erraz irabazi zuen 5 diputatu-aulkietatik 3 (2 PSOEk) eta 4 senatari-aulkietatik 3 (EAJ-PNVk 1) aterata.

PC suntsitua gertatu zen, bunker frankista irudikatzen zuen Alianza Popular bezalaxe. Emaitza hauek ikusirik, lau probintziak erkidego autonomo bakarrean biltzeko exijitzeak zaila zirudien.

Baina, zenbaketa hauen ondorengo beste aipamen zenbait ere egin behar da.

Lehenik, Espainia Europako gainontzeko herriekin lerrokatu beharraz ohartzen ziren eliteen bidez, frankismoa birziklatzea onartu zuten maila bereko gainontzeko buruzagiek,

izan PSOEkoak, EAJ-PNVkoak, Kataluniako alderdietakoak, eta abar. «Erreforma adostua» funtzionatzen zuen afera zen. Gainera, 40 urteko diktaduraren eta despolitizazioaren ostean, bozkatu ahal izate hutsa aski zitzaion gehiengoari sinesteko demokrazian zegoela, eta erregeari esker gainera!

Era berean, hauteskunde horiek sortutako egoerak boteretik baztertu zituen azken 20 urteetan, herriaren sostengu handiarekin, gisa guztietako borrokak egin zituztenak.

Azkenik, argi zegoen ezker abertzalea ezin izango zela luzaz hauteskundeetatik bazter ibili, eta, lehia horretan, bat eginda baizik ezin izango zuela burua zutik atxiki.

Euskal Herriko lau polo politikoak

Handik aurrera, Euskal Herriko bizitza politikoa lau ardatz nagusiren inguruan artikulatu zen: subiranotasunaren aldeko ezkerreko poloa, laster Herri Batasuna izango zena eta ETA (m); polo autonomista bikoitza, EAJ-PNV eta PSOE; eta eskuineko espainolisten poloa.

EAJ-PNVren kezka nagusiak Euskal Autonomia Erkidegoko (zeinarentzat Gernikako Estatutua onartu baitzuen, nahiz eta Nafarroa ez barne hartu) lehen indar politikoa izatea, aukeran PSOErekin aliatuz, eta Madrildik aurreikusitako transferentziak eskuratzea izan dira beti, horretarako Gorteetan Espainiako eskuina sustengatu behar izan duenean ere. Baina bere hizkera subiranotasunaren aldekoa ere izan ahal izan da, subiranotasun horretatik hurbil diren bere bozkatzaileei eusteko.

Subiranotasunaren aldeko poloak bi elementu nagusi ditu: ETA (m), «erreforma»ren gainetik borroka armatuarekin jarraitzea erabaki zuena; eta Herri Batasuna koalizioa, 1977ko hauteskundeen ondoren sortua.

ETA (m)-k Xibertakoa baino lehen harremanak izan zituen Genovan Suarezen Gobernuarekin. Erakundeak bazekien eduki frankista handia zuen Gobernu horri su-eten bat interesatzen zitzaiola batez ere, baina benetako amnistia biziki problematikoa zatekeela. Madrildik ikusita, atentatu independentistak krimen barkaezinak baino ez ziren. Eta hauteskundeen bezperan ETAko azken presoak Espainiatik kanpo bidaltzea Europari preso politikorik ez zela erakusteko modua baizik ez zen izan Suarezentzat. Ez zen inolaz ere frankisten gerrako krimenak eta humanitatearen aurkako krimenak ezabatu behar zituen amnistia.

Batez ere, ETAko gudarientzat pentsaezina zen Euskal Herria autodeterminazio eskubidea duen nazio gisa ez aitortua izatea. Borroka etetea, izateko arrazoiari uko egitea zen, garaituak izan zirela onartzea eta Francoren pean bezain bortitza izaten jarraitzen zuen Estatu baten aurrean makurtzea.

Herri Batasuna Xibertan egon ziren ezkerreko alderdi nagusiak biltzen zituen koalizioa zen: EHAS (HASI bilakatua beste zenbait talde eta pertsona politiko bilduta), ANV, ESB, LAIA. Nukleo marxista-leninista gogorretik harago zihoan aukera ideologikoa, beraz. Mugimendu horretatik sortu ziren Amnistiaren Aldeko Batzordeak, LAB sindikatua eta Jarrai gazte erakundea.

Telesforo Monzon pisu handiko bateratzailea izan zen Herri Batasunarentzat. Bere mintzaldiekin jende-oldeak altxatzen zituen mitinetan eta askatasunaren aldeko martxetan. Beretzat nola Herri Batasunarentzat, Espainiako 1978ko Konstituzioa onartezina zen, Espainiako Nazioaren eskubide gorena kontsagratzen baitu eta armadari Estatuaren batasunaren zaintzaile papera ematen baitio. Gernikako Autonomia Estatutuari dagokionez, autodeterminazio eskubidea kanpo uzten du eta Nafarroa baztertzen.

Monzon Gorteetako diputatu hautatu zuten, baina ez zen Madrilera joan. Eusko Legebiltzarrean ere hautatu zuten, baina 1981ean hil zen. Herri Batasunako hautetsiek beti adierazi izan dute Espainiako instituzioen kontrako jarrera, eta "legeak hala aginduta" baino ez diotela men egiten adierazi.

Polo espainolista Estatu mailan boterea lortzeko lehiatzen diren bi alderdi nagusiek eratzen dute. Frankismoaren aurkako alderdiak ere makurrarazi zituen «erreforma adostua»ren bidez, frankismoko elite aurreratuek inposatutako xedapenak biltzen dituen Konstituzioa errespetatzeko prest daude, PSOErengandik hasita. Bai batak eta bai besteak boterea eskuratzea eta botereari eustea dute xede, unearen arabera, eta horretarako, antzeko estatu-politika egiten duten Euskal Herriko, Kataluniako edo beste nonbaiteko alderdi autonomisten zein nazionalisten sostengua bilatzen dute. Ororen gainetik, Espainiako Nazioaren batasuna babesten dute, axola duen nazio bakarra, eta horretarako Euskal Herrian eta Katalunian dauden indar zentrifugo garrantzitsuenak neutralizatu nahi dituzte. Ondorioz, bizitza politiko konplikatua dute duela 36 urtetik.

Aterabide politiko saihestezinetarantz

Francoren ondotik, Espainiako Estatuko nazioaniztasunak ez du aterabide egokirik atzeman eta munduaren aurrean horren erakusle izkutaezin izan da ETAren borroka armatua, eta baita Herri Batasuna eta bere ingurua ere. Noski, Madrilen izan diren eskuineko eta ezkerreko botereek antiterrorismoa erabili dute elementu bateratzaile gisa barrura begira. Kanpoan, aldiz, estatu-terrorismoa praktikatu dute zigorgabe, ATE, BVE eta GALen bidez, frantses Estatuko lurraldean errefuxiatutako militanteak fisikoki garbitzeko. Era berean, Espainiako diplomaziak, Frantziako Estatuak sustengaturik, gerra psikologiko latza egin du nazioarte mailan eta, batez ere, Europa mailan, ETAri kanpoko laguntza oro kentzeko, eta Espainiak Francoren diktadurako metodo berak (frogarik gabeko kartzelaratzeak eta torturak, kasu) erabiltzen dituela ahantzarazten saiatu da. Orain arte, ETArekin izan diren elkarrizketek, suetenek indartuak, ez dute emaitzarik izan. Eta porrota beti ETAri egotzi zaio.

ETAk Euskal Herriko bizitza politikoan ere izan du eragina.

Eskuin abertzalearen aldetik, Madrilekin eraman duen politikak EAJ-PNVren zatiketa eragin zuen eta bere alde sozial-demokrata eta independentistatik EA sortu zen. Eta Madrilek eskertu dio EAJ-PNVri bere malgutasuna, PSOE-PP fronte espainolista eratu eta Eusko Jaurlaritzaren gidaritzatik baztertuz.

Herri Batasunari eta bere inguruko talde gehienei dagokienez, euren proiektu politikoak ETArenarekin bat egitea garesti ordaindu dute. Madrilek gerra juridiko-polizial osoa egin die, euren debekua eragin arte. Herri Batasuna legez kanpo utzi eta gero, Batasunaren sorre-

ran zatiketa izan zen eta, ondorioz, Aralar sortu. Debekatutako erakunde guztiak terroristatzat joak dira, izan ere, ezker abertzalean "dena ETA da", Espainiako Gobernuaren iritziz. Militante politikoak eta gazte-mugimenduetako kideak terrorista gisa bilatuak dira Europa guztian, euroaginduaren bidez. Espainiako diplomaziak sutsuki sustengatu du euroagindu hori martxan ezartzea.

Baina egoera honek ezin du betirako iraun. ETAren borroka armatuaren amaieraren perspektibak egoera aldatu du. Azken udal- eta foru-hauteskundeak dira horren froga. Madrilek hautesontzietatik baztertuak zituen Euskal Herriko hautesleak mintzatu ahal izan dira, eta 1977tik egoera sakonki aldatu delako froga badugu.

Lau herrialdeetan, "multzo abertzale" dei dezakegunak (PNV+NaBai+Aralar+Bildu) 736.272 boz bildu ditu eta "multzo espainolistak" (PSOE+PSN+PP+UPN) 520.631 boz. Espainiako eskuinak eta ezkerrak elkarturik Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan agintzeak adierazten duen normaltasun eza neur dezakegu horrenbestez. Bilduren emaitzak ere zer pentsatu ematen du: etorkizunean EAJ-PNVren pareko ezker abertzale bat era daiteke. Nafarroan ere aldaketa nabarmenak izan dira, eta NaBaik eta Bilduk bozen %28,7 eskuratu dute.

Euskal Herriko hautesleek alderdi politikoen gidaorria idatzi dute nolabait. Alderdiok jakingo al dute berriz Xibertan elkar atzematen ezker eta eskuin abertzalearen "estatu-politika" komun baten oinarriak ezartzeko, PSOE-PP koalizioaren aurrean?

ETA desagertzeak ezin izango du gai-ordenan 1977ko galdera bera egotea saihestu: preso politiko guztientzako amnistia, egun sakabanaketa eta urruntze politika bera daramaten Espainiako eta Frantziako Estatuei dagokiena.

Anai Artea

Xibertako bilkuren aitzinetik

T. Monzon: "Euskal indar guztien batasunerako lanean aritzeko gogoa daukat"

Nire arima guztiaz, abertzale guztien arteko programa batua eraikitzeko ekintzetan parte hartzea da nire egitasmo pertsonala. Horri 'Bergaratik Eibarra' deitzen diot. Itun horren lehen atala preso guztientzako, bai eta atzerriratuentzako ere, amnistia osoa da; gero, galdua dugun guregaintasunaren berrerainkuntza; azkenik, euskal populuak burujabetasunerako duen eskubidearen ezagupena, eta, noski, indar espainiar okupatzaileak Euskaditik kanporatzea… Bere buruaren jabe zen Jaurlaritzaren partaide izan nintzen. Gaur egun, alderdi guztien gain dago, Euskal Herriari galdetu bitartean, iraungo duen estatutu iragankor hori zein izango den erabakitzea.

Beti esan ohi dut guk abertzaleen artean elkarrekin konpondu behar dugula lehenik. Elkar konprenitze hori lortu eta gero, egitasmo minimo bat eskaini behar zaie Euskadin dauden beste alderdi guztiei.

Gaur egun hitz askorekin ziria sartu nahi digute: autonomia, erregionalizatze, kontzertu ekonomiko, junta federal, etab. Gu Eusko Abertzaleak gara eta beldurrik gabe diot, espainolen eta frantsesen aurrean aldarrikatu behar da: gure Aberria Aturritik Ebroraino doa.

Ez dut neure burua agintzen ikusten, baizik Euskal Herriaren mistika ereiten, askatasunera hel dadin. Etxea geurea izango ez den bitartean lanean arituko naiz, "pintura" gero ikusiko. Hots, euskal indar guztien batasunerako lanean aritzeko gogoa daukat, eta hori lortuz gero, nire Bergarako etxera sartuko naiz, abestiak idazteko.

Telesforo Monzon
*Enbata*n 1977ko martxoan argitaraturiko elkarrizketatik hartua

Xibertako aktak

Kazetari gisa parte hartu nuen indar abertzaleek Angeluko Xiberta hotelean egin zituzten bost bileretan. Alkateen Mugimenduko ordezkari Jose Luis Elkorok dei egin zidan, goi-bilera politiko haien antolatzaile eta anfitrioi zen Telesforo Monzonek hala eskatuta. Ezarritako helburua betetzen bazen, elkar ulertzea alegia, topaketa sekretu eta klandestino hura historikoa izango zen, esan zidatenez.

Oraindik izenik ez zuen Iparraldeko leku hartara ailegatzeak misterio ukitua zeukan. Segurtasun-arrazoiak tarteko, bi aldiz aldatu nuen autoa eta txoferra. Azkenik, baratze bateko atzeko atera heldu ginen, eskailera batzuk jaitsi eta gortina itxi batzuen atzetik, bilera-gela handi batera sarrera ematen zuen ate batetik igaro ginen.

Behin barrura sartuta, han zeudenetako batzuk ezagutu nituen. Zenbait gure aldizkariko erredakziotik igaroak ziren. Beste batzuei elkarrizketa egina nien. Baina gehienak erabat ezezagunak ziren niretzat.

Lehenengo talka zurruntasunarekin

Elkar ezagutzen zutenen arteko atariko agurren ondotik, mahai luze elkartuan egokitzea etorri zen, egokitze tenkatu eta adeitsua. Aurkez gintezela eskatu zigun bertaratu ginenoi Telesforo Monzonek. Magnetofoia piztu eta oharrak idazten hasi nintzen.

Hogeita zortzi pertsona zeuden han eta hogeita bik esan zuten nor ziren. Nire txanda iritsi eta neure burua prentsakotzat aurkeztu nuenean, jaun haserretu batek ni kanporatzea eskatu zuen.

Gertatuko zenaren lekuko gisa han geldi nendila erabaki zuten bertaratuek. Parte-hartzaileek idatziz hartutako erabakien berri soilik eman ahal izango nuen. Baina ez nuen baimenik grabatzeko, ezta oharrik hartzeko ere. Horrelaxe egin nuen.

Hasierako oztopo hura izan zen lehenengo talka berrogei urte baino gehiago iraun zuen diktadurak jokamolde sozialetan itsatsita utzitako zurruntasunarekin eta autoritarismoarekin.

Herraren argazkia

Zentsura-kontuak gorabehera, kazetari batek lehen eskuko informazio konfidentzialak, isilpeko agiriak, elkarrizketak eta bertaratuen iritziak eskuratzeko leku berezia zen hura.

Jakitun nintzen ordura arte ezagututakoaren ertzetan nenbilela. Han, klandestinitatea horixe bera zen zehazki: klandestinoa. Estatuaren sekretuak, literalki: sekretuak. Salaketa, pronostiko txarreko zeregina. Aurkariarenganako gorrotoa eta higuina, gehienek agertu zuten arma, arma errabiaz kutsakorra. Su-armarenak bezain ondorio hilgarriak eta erabatekoak zituen arma. Gainera, zerbitzu sekretuen bizi-harrobi zen joko bikoitzak gozopilen bat edo beste apaindu zuen. Laburbilduz, kokatze erosoaren bilaketak hainbat zinismo eta ausardia erakustaldi eskaini zuen.

Mahaia partekatu zutenak, ez irudizko adieran bakarrik, saio luze haiek egun osoa irauten baitzuten, oharkabetasunaren argazki finkoa ziren. Ez ziren ohartu euren akordioek izan zezaketen garrantziaz. Herrak setiatu zituen.

Aukera bakarraren hoditeria

Egiaztatu ahal izan nuenez, era berean, ahots haserretuek, gorrotoz josiek eta autosufizientziaz eta harropuzkeriaz beteek, erregaia bota zioten historiaren suari. Beste batzuek, aldiz, jendetasun eta maila intelektual handia erakutsi zuten. Euren balioak eramangarriago egin zuen desadostasuna, eta elkar aditzea eta errespetua erraztu.

Gaur egun gisa horretako gatazkak konpontzen diharduten adituek duten jakituria eta esperientzia izan balu orduan jende horrek, Euskal Herria elkarbizitza eta askatasun eremu izango zatekeen iragan diren 35 urteotan.

Kontua da herentzia frankistak baldintzatu zuela euskal etorkizuna aukera bakarraren hoditeria zurrunetan trabatuta gelditzea. Bertaratuek euren posizioak pausu eta erdi mugitu zituzten doi-doi.

Gainera, parte hartu zuten erakundeen zuzendaritzek ez zituzten euren aditurik onenak igorri akordioa lantzeko. Ondorioz, errealitateak ez zuen bat egin ez bakea erabakitzeko gaitasunarekin, ez bakea lortzeko borondatearekin. Ez euren ustez nagusi ziren alderdien artean, ez txikienen artean.

Hortaz, Xibertako golf-zelaiaren ondoan jokatu ziren zulo politikoak askatasunaren praktika ezaren eta debekuaren ondorio izan ziren. Abiapuntuko akatsa izan zen, jokoan leialtasun oro eragotzi zuena. Makilarik gogorrenarekin jo zen pilota, aurkariari ahalik eta lasterren eta ahalik eta kolpe kopuru handienarekin kalte egiteko.

Anai Artearen eskuetan

Suarezekin izandako elkarrizketaren berri ematen zuen komunikatu bateratua eta azken eta bosgarren bileran parte hartu zuten indar politikoek sinatutako agiria argitaratu ziren *Punto y Hora de Euskal Herria*-n. Hortxe amaitu zen nire lana.

Parte-hartzaileak

ALDERDI POLITIKO LEGEZTATUAK

ESB Eusko Sozialista Biltzarrea
1976ko ekainaren 11n, jendaurreko aurkezpena Arkautin (Araba)
ELA, Aintzina eta kooperatibistetatik etorritako taldeen koalizioa.

ESEI Euskadiko Sozialistak Elkartze Indarra
1977ko otsailaren 8an legeztatua.
Kultura eta unibertsitate esparruei atxikitako sozialdemokratak.

EAJ-PNV Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco
1977ko martxoaren 16an legeztatua.
Nazionalismo historikoa, Sabino Aranak sortua 1895ean.

EIA Euskal Iraultzarako Alderdia
1977ko apirilaren 2an legeztatua.
ETA (pm)-ren VIII. Asanbleatik eratorria, eta EMK Euskadiko Mugimendu Komunistarekin EE Euskadiko Ezkerra koalizioa eratu zuten.

EAE-ANV Eusko Abertzale Ekintza-Acción Nacionalista Vasca
1977ko apirilaren 14an legeztatua.
Nazionalista sozialdemokrata akonfesionalak, 1930ean EAJ-PNVrengandik bereiziak.

LEGEZ KANPOKO ALDERDI POLITIKOAK

EKA Euskalherriko Karlista Alderdia
Karlismo historikoa, Carlos Hugok berreratua, autogestionarioa eta federala.

EHAS Euskal Herriko Alderdi Sozialista
Iparraldeko HAS Herriko Alderdi Sozialistaren eta Hegoaldeko EAS Euskal Alderdi Sozialistaren fusiotik HASI sortu zen.
KAS Koordinadora Abertzale Sozialistaren kide sortzailea.

LAIA (bai) Langile Abertzale Iraultzaileen Alderdia.
ETAtik erauzia 1974an.
Marxista-leninista, aliantza abertzaleen aldekoa. KASen sartu zen.

LAIA (ez)
ETA (pm)-tik bereizitako taldea 1974an.
Soilik marxista-leninista mailako taldeetan biltzearen aldekoa.

ETA (m) Euskadi Ta Askatasuna (Militarra)
ETAren zatiketa 1974an.
Borroka armatuaren aldeko adarra.

ETA (pm) Euskadi Ta Askatasuna (Politiko-Militarra)
ETAren zatiketa 1974an.
Borroka armatua eta masa-operazioak uztartzearen aldeko adarra.

BEREZIAK edo ETA (pm)'
ETA (pm)-ren zatiketa 1977an, zuzendaritza likidazionistatzat jotzeagatik.
Komando Bereziak talde armatua osatu zuten.

ALKATEEN TALDEA

Udalen mugimendua, Jose Luis Elkoro gidari, hasieran (1976ko uztailaren 21). Erabateko Foru Berrezartzea zuen aldarri. 69 udal atxiki zitzaizkion Bergaran, eta Nafarroan, (Etxarri Aranaz, 1977ko urtarrilaren 16a), 174 udal.

Euskal herritarren helburuak bere egin zituen, eta trantsizio garaiko Espainiako Gobernua eta ministroekin maila goreneko solaskide izatera heldu zen, alderdi politikoak legeztatu arte.

Aktak: bileretan esanak

LEHEN BILERA (1977-04-24)

KAS: Hauteskundeetan abstentzio-blokea eratzea presoak ez badira askatuak.

Arrazoiak:

1) Gobernuaren aurrean indarra egitea, presoak aska ditzan.

Indar hori egiazkoa izango da, baldin eta:
. blokea bada: denak batuta.
. abstentzioaren mehatxua egiazkoa bada.

Gobernuari ondokoak interesatzen zaizkion une honetaz baliatzea:
. hauteskundeetako parte-hartzea berrestea
. euskal arazoa gainetik kentzea

Gobernuak indar hori behar du militarren gehiegizko erreakziorik gabe presoak kartzelatik ateratzeko: amnistia PCren legeztatzea baino zailagoa da (politikoki, ez teknikoki).

2) Gertakariekin erakustea euskal arazoa konpondu gabe dagoela, eta estatutua eskatzeko garaian, indartsu egotea.

Errepublika garaian demostratu zen Parlamentuan parte hartuz papurrak soilik lor daitezkeela.

Hurrengo Gorteetan, konstituziogileak izango diren uste baikorrarekin, eskuina gailenduko da, eta gutxi espero beharko da haiengandik, non eta herriak ez duen egiazko indarra erakusten bere eskakizunetarako. Horren lehen adierazlea abstentzio handia litzateke.

3) Erreforma ezegonkortzea parte-hartze ezaren bidez.

Nahikoa litzateke alderdi abertzaleek ez parte hartzea, nahiz eta herriaren parte-hartzea kuantitatiboki handia izan. Hori zaila litzateke, izan ere, hautesle abertzalea hautagairik gabe geldituko litzateke (eta sektore handi batek ez dio Alianza Popularrari bozka emango, ezta PC edo PSOEri ere).

4) Frankismoaren jarraipena den Erreformarekin ez kolaboratzeko eta estatutua eskatzerakoan indar handiz jokatzeko beharraren kontzientzia piztea herriarengan.

Alderdiek egin behar dute abangoardiako lan hau, eta lortuko lukete data historiko hori baino lehen elkartuta aurkeztuko balira.

EAJ-PNV: Hauteskundeetan parte hartu, nahiz eta presoak ez askatu, Parlamentutik amnistia eta estatutua eskuratzeko.

Arrazoiak:

1) Herriak bozkatu nahi du. Aski indar genuke abstentzioa lortzeko?

2) Presoak askatuko dituztela uste da. Merezi du Parlamentuko parte-hartzea Gobernuaren esku dagoen gertakari batekin baldintzatzea?

3) Parte hartzeak, estatutuaren bidez, egituraketa politiko eta administratibo progresiboa lortzeko aukera emango lioke herriari.

4) Abstentziora jotzen badugu, Arabak eta Nafarroak parte hartuko dute eta Parlamentuan laguntzarik gabe geratuko dira Euskadiko bloke politikotik bereizita.

5) Donostiako Itunean ez parte hartzea akatsa izan zen, eta ez da orduko akats historikoa errepikatu behar.

BIGARREN BILERA (1977-04-30)

Euskadiko erakunde politikoen bilera

Deituak: EAJ-PNV, ESB, Eusko Sozialistak, EAE-ANV, EKA, ESEI, EHAS, LAIA eta EIA. Halaber, ETA Militarra eta ETA Politiko-Militarra erakunde armatuak.

Bertaratuak: EHAS, LAIA (bai), EKA, ESEI, EAE-ANV, EAJ-PNV, ETA (m) eta ETA (pm).

Ez dira etorri: ESB, Eusko Sozialistak eta EIA, azken honek mugan gelditu dituztela abisu eman du goiz erdian, autoaren paperak direla eta. Bukaerarako iritsi dira, EHAS eta LAIA (bai)-rekin bat egin dute beren posturan.

ETA (m): Monzonek, Alkateen ordezkaritza batek (Oiartzun eta Bergarako alkateak eta Bergarako alkateordea) eta *Punto y Hora*ko zuzendari Mirentxu Purroyk, prentsaren ordezkari gisa, lehenengo bileran parte hartzea proposatu du.

EAJ-PNV: Traba batzuk ipini ditu eta esan du denek dei egiten ahal zietela kazetari eta independenteei, baina esan du ez duela ezer horren aurka.

Onartu dute.

Moderatzailea: Bergarako alkatea, Elkoro.

Moderatzailea: Sarreratxo bat egin du eta azaldu Euskadin momentu erabakigarrian gaudela hurrengo hauteskundeen aurrean bi postura baitaude: abstentzioa/parte-hartzea. Abstentzioaren aldekoek uste dute baldintza batzuk bete ezean ezin dela hauteskundeetan parte hartu, eta besteek parte hartu behar dela. Arazoa akordiorik eza da; herriaren irizpidea da, jarraitzen du, euskaldunak beren artean aurrez aurre jarri baino lehen aterabide bat aurkitu behar dela, nahiz eta txarra

izan, eta azkenik, liskarra eragotziko duten posturak mahaigaineratzeko eskatu du.

Monzon: Elkororekin bat egin du bere sarreran, eta dio ezin dela bertatik atera soluzio batera ailegatu gabe, hobe edozer nora eramango gaituen ez dakigun erabateko haustura baino.

ETA (m): Bi gauza eskatu ditu: bata, erabakitzeko gaitasuna, iritzi-trukaketa soilean erori gabe, aurreko bileran bezala ezer erabaki gabe ez gelditzeko, eta, bestea, hauteskundeen gaiaz eztabaidatzea, erakunde bakoitzak bere jarrera definituz.

Moderatzailea: "Beno, has dadila bakoitza bere azalpena ematen."

ETA (m) hasi da: "Amnistiarik gabe eta erakunde politiko guztiek kartzelara joateko beldurrik gabe lasai hitz egin ahal izan arte, ez gara hauteskundeetan parte hartzearen aldekoak. Hori da erakundearen erabakia."

ESEI bilera egiteko metodologiarekin ez dago ados: "Gauzak ezin dira nahasi eta ETA Militarrak bi gauza nahasi ditu: arrazoiak eta jarrera." Behin betiko jarrerekin hasi baino lehen, uste dute hobe dela lehenik arrazoiez hitz egitea, ondorioetara iristeko. "Denok sentitzen ditugu amnistia eta gainerakoak, baina egoera hain da labainkorra ezen uste baitugu ez dela jarrera itxietatik abiatu behar."

ETA (m): "Herria nahasita badago alderdiek deus argirik esaten ez dutelako da, eta jarrerak zein diren agertzeak ez du esan nahi, arrazoiez arituz, alda ezin daitezkeenik, biak egin behar direnik."

ESEI: "Gure herriaren errealitatea oso heterogeneoa da, Santutxuko jendeak eta Lizarrakoak ez dituzte gauzak era berean barneratzen." Nahiago dute portaera bakoitzaren aldeko eta kontrako eraginak aztertu.

Monzon: Bilerak egun osoa iraun dezala eskatu du.

EAJ-PNV: Arratsaldeko ordu 2etarako alde egin behar dute.

ETA (m): "Seriotasun handiagoa behar da; aurreko bileran egun osoa iraungo zuela erabaki genuen."

EAJ-PNV: "Erabaki garrantzitsuen inguruko konpromisoak onartu behar ditugu, ezarriak datozkigunak askotan."

Bilera 9'30ean hasi da, eta EAJ-PNV 10'30ean heldu dela zehaztu behar da.

Monzon: "Bilera 3 ordutan egin behar bada, estutu egin beharko da."

Moderatzailea: "Hobe bakoitzak bere jarrera azaltzea, baina ahal den heinean argudiatuz."

EAJ-PNV: "Eraginkorrak izatekotan, bilerak ezin dira luzeak izan, horrela ez baitute fruiturik ematen. Aurreko bileran erabaki genuen bakoitzak bere jarrera bilerara ekarri eta garbi, labur eta, batez ere, zehatz azalduko zuela."

Txandak aurrera darrai.

EAJ-PNV: "Asko hausnartu ondoren, hauteskundeetan baldintzarik gabe parte hartzeko erabakia hartu dugu.

Amnistiaren arazoa hor dago eta hori lortzeko borroka egingo dugu, baina agian modu bat baino gehiago dago. 'Amnistia' deitzea ez dugu gogoko, nahiago dugu 'presoak kartzelatik atera edo askatzea' esan. 1934an, Frente Popularrak presoak bazituen eta honela esan zuen: 'lehenago ateratzen ez badituzte, hauteskundeetan parte hartuko dugu presoak askatzeko'. Guk ere horrela ikusten dugu. Alianza Popular alderdiak Senatuan irabaziko balu, luzaz ezingo dugu politikan parte hartu, eta hori da helburu progresiboak lortzeko bidea.

Alderdiarentzat funtsezkoa izan da borroka politikoa, eta orain arte bezala jarraitzen ez badugu, herri-mobilizazioen alde egin beharko da, eta ez dakigu horrek nora eraman gaitzakeen.

Egin diren sondeo guztien bidez, eta Araba eta Nafarroa kontuan harturik, uste dugu ezin dela abstentzioa kontrolatu, herriak bozkatu nahi du. Gu aurkezten ez bagara, herriak gure ordezkaritzarik gabeko erakundeak ontzat emango ditu, homologatuak gainera.

Garrantzitsua da Nafarroa gogoan izatea, Euskaditik bereizi nahi baitute. Parte hartzen ez badugu, beste indar batzuei gure herria nahi erara egituratzeko aukera emango diegu, eta gurekin ezin dela hitz egin esango dute, basak garelako.

Indar abertzaleek ez badute parte hartzen, beste batzuek egingo dute: PC, PSOE, Alianza Popular, eta gu bazterrean geratuko gara. Baliabideak badaude alderdiak ez legeztatzeko, baina era askotara aurkez daiteke.

Parlamentuan koalizioak egin ahal izango dira amnistia, estatutua eta abar lortzeko. Pixkanaka lortuko dira. Nik bermatzen dut amnistia emango dutela."

EHAS: "Aberri Eguna bezala?"

Moderatzailea: "Alianza Popularrari lekua ken diezaioketen indarrak badaude, baina Senatuan ez, han nagusi dira."

EAJ-PNV: "Amnistia kalifikatua emango da, eta gainera, oso kezkatuak daude naziotasunekin."

ESEI: "Hasierako gure jarrera baldintzarik gabe parte hartzearen aldekoa da, baina aldi berean baldintzatzaile batzuekin. Hau da, parte-hartzea ez aldarrikapenetara baldintzatzea, baina bai erakunde guztien arteko akordio batera, diputatuek eztabaida Parlamentura eraman dezaten."

Mobilizazioak hauteskundeekin uztar daitezkeela uste dute. Dena den, abstentzioaren alde egingo lukete, gehiengoak hala nahi balu, noski. "Egia da amnistia jada emana behar zutela, egun bahituez mintzatu behar da, haiekin jostatu nahi dute gu zatitzeko. Eta, zein da metodorik egokiena atera daitezen?" Uste dute parte hartzeak presoak kaleratzea bultzatuko duela, *Parte hartu ez eta bazter geratzen zarenean, ez da inoiz jakingo erori zaren edo bota zaituzten* filma ezagunaren izenburuak ondo dioenez.

Iskanbila eragiteko prest dauden euskal parlamentari gutxi batzuk gauzak argitzeko gai direla uste dute, eta Madrilen gutaz nola trufatzen diren eta gainerako guztia esateko hauteskunde kanpaina baliatu behar da.

EAE-ANV: "Gure ustez, diputatu batzuek herriari, Gobernuari, askatasunari buruzko gure ikuspuntua Madrilera eraman beharko lukete", amnistia lortzeko biderik egokiena hori dela uste dute. ESEIrekin bat datoz ia, "gure nahia denok bat egitea da, askatasuna eta amnistia lortzeko ordezka gaitzaten."

Alkateak: "Gu herriaren kudeatzaileak gara, ura, amnistia eta herriak eskatzen digun guztirako, ez gaude baldintzarik gabe parte hartzearen alde, eta ondorioz, hauteskundeak zapuztu, eta dimisioa aurkeztuko dugu."

LAIA: Zein datatan egingo duten galdetu diete.

Alkateak: Ez dakite ziur, maiatzaren 24a aldera izango ei da, ezin dute orain esan nola egingo luketen, bere momentuan aztertu beharko da, baina egingo dute eta ez dute uste jendeak atzera egingo duenik. Izan ere, 47k konpromisoa hartu eta sinatu dute.

LAIA: "Hauteskundeak Erreformaren puntu gorena dira, eta ez dugu fede handirik. Guretzat masa-borroka hauteskunde-borroka baino garrantzitsuagoa da. Orain

arte lortu diren kartzelatik ateratzeak herri-mobilizazioei esker lotu dira. Amnistia osoa eta askatasun demokratikoak eta alderdienak ez badira ematen, ez dugu parte hartuko. Hauek eskuratu ezean, boikot aktibora igaroko gara."

EHAS: "Espainiako Gobernua aurpegi demokratikoa jartzen saiatu da. Horretarako, erreferenduma jaurti du, eta herriari parte hartzeko eskatu. Orain alderdiei gauza bera eskatzen ari zaie hauteskunde hauekin. Zerbait eskatu behar zuen, nazionalitateen gutxieneko aitortza bat, baina ez du halakorik egin. Ezin diogu bere jukutrian lagundu. Gainera, errepresio-indarrekin joango ginateke eta parte hartuaz, indartu egingo ditugu.

Indar abertzaleak ez bagoaz hauteskundeetara, Gobernuari garau bat aterako diogu eta ezin izango da hain lasai agertu Europan.

Geure buruari ondokoa ere galdetzen diogu: Parlamentutik kanpo amnistiaren alde borrokatu ez diren, baina bertatik hala egingo dutela dioten hautagaiek zer berme eskaintzen digute?"

ETA (pm): "Amnistia ezartzen ari da frogaharri gisa. Preso horiek beren ahotsa gehien entzunarazi behar duten bi erakundeetakoak dira. Laburbilduz, amnistia ematen badute, sendotu, Erreforma ere sendotzen dugu, parte hartuko baikenuke. Baina uste dugu baldintzarik gabe parte hartzen badugu ez dutela amnistia emango, eta egun KASi konpromisoa onartu diogun bezala, amnistiarik eman ezean, parte hartzearen aurka gaude. Badirudi batzuek ahantzi dutela parte hartu nahi dugula, baina ahal dugun guztia egin behar dugu presoak askatu, askatasunak lortu eta parte hartu ahal izateko.

Dena den, ez da amnistiaren arazoa soilik, KASek bere hautagaitzak kenduko ditu maiatzaren 25ean aurkezpenik egin ahal izan gabe, debekatzen baitzaio, ez zaio parte hartzen uzten. Amnistia eman daiteke, baina ez da hori hautua. Egoera ez aurrera ez atzera dago. Gobernuak ez du aurrera egin nahi. Aitzitik, dena debekatzen du. Indar guztien batasuna behar dugu Gobernuari presioa egiteko."

EKA: "Hauteskundeak irabazten saiatu beharreko bataila politikoa dira, Gobernuak parte hartzeko egin duen kanpainaren arabera." Batasuna da garrantzitsua eta hori lortzeko balio badu, abstentzioaren alde borrokatzeko prest daude.

Moderatzailea: "Aurkako iritziak daude, orain hasiko da elkarrizketa. ESEIren jarreran iturri irekia ikusten da, polemika Parlamentura eramateko parte hartzea. Hau azaltzen dut eztabaida hortik has daitekeen ikusteko."

ESEI: "Amnistia ezin da hauteskundeetatik bereizi, zerikusia dute, eta amnistiari indar handiagoa eman dakioke hauteskunde kanpaina baliatuaz."

ETA (m): "Hori guretzat ez da iturri irekia. Orain erakunde bakoitzak azaldu dituen arrazoiak eztabaidatzeko unea da.

Hemen esan diren bi gauzari erantzun nahi diet, EAJ-PNVri zehazki. Alianza Popular alderdiari amnistia eta abar ateratzeko, Parlamentuan egin daitezkeen koalizioak aipatu ditu. Ez, ez dugu ezer lortuko ez PCrengandik, ez PSOErengandik. Euskadiren historian, Espainiak, Madrilek ez digute inoiz laguntzarik eman, haiengandik ez dugu egurra baizik jaso, eta estatutua eman bazuten, gerra irabazteko interesatzen zitzaielako zen, porrotaren bezperan zeuden eta. Gauzak borroka eginez lortzen dira.

Bozkatzeko gogoa ere aipatu da. Erreferendumean emaitzak faltsutu ziren eta 'faxismoa bai' ala 'faxismoa ez' hautatu behar izan zen. Emaitza ez da harritzekoa. Baina orain Euskadin ez bada inongo alderdi abertzalerik aurkezten, inork ez dio Fragari bozka

emango. Jendeak bozkatzen badu jende ezaguna eta prestigioduna dagoelako izango da, baina bestela, ez.

Ez dut ukatzen PCren legeztatzeak eragina izan duenik, baina guretzat horrek ez du ezer esan nahi. Izan ere, Euskadik esplotatua eta zapaldua segitzen du, lehen bezalaxe.

Nahi nuke Monzonek gerra aurretik Madrilen euskal diputatuek zer lortu zuten azal dezala. Bera diputatu izana da eta konta dezake.

Beraz, bi dira galderak: noiz lortu da zerbait borrokarik gabe? Eta, nork berma dezake PC, PSOE eta abarrek parlamenturen batean babesa emango digutela?"

ESEI: "Errespetu guztiarekin, esan behar da politika autonomiko errepublikarra Donostian izenpetu zela, burges batzuek egin zuten itun famatu hartan. Errepublikaren Konstituzioan zer lantzen ari ziren ez jakiteak, Lizarrako Estatutua aldatu beharra eragin zuen."

Monzon: "EAJ-PNVk gerra egin du, eta alemaniarren aurkako erresistentzia, milaka hildakorekin bai, ez erresistentzia pasiboa, ezta gutxiago ere. Ez du gerra amaitu, inork ez du armistiziorik sinatu, hau beti defenditu izan dut. Egun, gerrako 35 preso kartzelan, ez dago bakerik.

Ezin gara hauteskundeak bezalako gai estu batean itxi. Arazoa da Euskadik ez duela euskal politika nazionalik, estrategia nazionalik ez dugu. Ordezkatuko gaituen euskal erakunde gorenik ez dugu. Egun, Eusko Jaurlaritzak ez du balio. Kontua da bertako bi kide espainolista ez direla inoiz aipatzen. Amnistiaren arazoa, hauteskundeak… gabezia horren barnean sartzen dira.

Esperientzia! eta orain, ETAri erantzungo diot. Historiak zerbaitetarako balio badu, nire parlamentu-esperientzia oso tristea dela esan behar dut; oso ongi bozkatutako ezagutzen dudan gauza bakarra Lizarrako Estatutua da. Sei urte pasa genituen herriaren nahia zela esaten, ezkerrak, aldiz, klerikalak, atzerakoiak… ginela, eta eskuinak, gorriak ginela. Hitz bitan, denek irri egiten ziguten, ezerk ez zuen balio eta gero bi ordutan eman ziguten bai, baina ordurako, tropa nazionalak Elgetan genituen eta gure beharra zuten.

Ni ez nago hitz egitearen aurka. PC legeztatu dutela? Benetan pozten naiz, demokraziarako pausua da. Baina tristeena da PC legeztatzeko armadari aurre egiten diotela, horrek esan nahi duen guztiarekin, baina euskal presoak askatzeko, ez dutela hala egiten. Gurekin jostatzen ari dira eta elkarren aurka jarri nahi gaituzte.

Hauteskundeak? Beno, amnistia, autonomia eta hauteskundeak lotura duten hiru gauza direla uste dut nik, eta egun ez dirudi hala. Nire barne-barneko desioa hauteskundeetan parte hartzea da, baina bi baldintzekin, ezin dugu presoek hala eskatu arte parte hartu. Eta, legeztatu gabea izanik egoera okerragoan den eta bere burua defenditzeko aukerarik ez duen alderdi bat nola ataka dezaket?! Hori astakeria da.

Baldintzak betetzen badira eta hauteskundeetara joan badaiteke, uste dut eta behin baino gehiagotan errepikatu dut diputatuak ezin direla Parlamentura espainiar gisa joan, euskaldun gisa joan behar gara, Euskal Parlamentua eratu behar da Iruñean, bertatik euskal gobernua sortu, Leizaola gertatzen dela lehendakari? Bada, oso ongi, baina bozketa bidez hautatua izan beharko luke.

Baldintzak betetzen ez direlako hauteskundeetara joaten ez bagara, Euskal Parlamentua eratu behar da dena den, eta herriari esan: hauxe da Euskal Erakunde Gorena. Euskal herritar abertzaleek jarraituko gaituzte, egon ziur.

Eta bukatzeko, egiazki beldur naiz, ez baitut ezagutu euskaldunen arteko egun

adinako gorrotorik. Hemendik bi bide ezberdin hartuta ateratzen bagara, lazgarria izango da."

ETA (m) ESEIri zuzenduz: "Donostiako Itunaren eta hauteskundeetan parte hartzearen arteko paralelismoak ez du balio. Donostiako Itunaren garrantzia erlatiboa da. Kataluniako Estatutua indar politikoen arteko itunaren bidez lortu zen, eta ez Parlamentuan. Egun, PC legezkoa dela kontuan hartzen badugu eta armadak duen beldurrarekin, ez du deus egingo amnistiaren alde, eta gutxiago estatutuaren alde. Armada honen guztiaren aurka dagoela kontuan hartuz, amore eman dezaten herriaren indarra baino ez dugu. Beren buruak egiazki presionatuak ikustean soilik emango dute amore."

ESEI: "PCren legeztatzea Gobernuak Europaren aurrean 'demokratiko' azaltzeko duen interesaren ondorio baino ez da, nazionalitateak baino gehiago ardura zaio hori. Arlo guztietan gure aurka daude, metodorik onena topatu behar da."

EAJ-PNV: "Hiru gauza aipatu nahi ditut:

- Euskadik hiru gerra egin ditu. Orain erakunde bat eratzea mahaigaineratu du, egingarria da, bai, baina ezin zaie denei ikuspegi bera ikusarazi, izan ere, herria plurala baita, eta hori onartu behar da. Gerra zibilean sartu nahi gaituztelako argudioa oinarritik erortzen da, bakoitzak defendatzen dugun posturaren arabera.

- Historiatik ikasi behar da, ideien eta demokraziaren indarrean sinesten dut, eta ez borroka basatian. Gainera, EAJ-PNVren jarduna beti izan da politikoa soilik.

- Ezin dira inposatu alde bakarreko posturak, denok ezagutzen dugu hauteskunde hauen baldintza demokratikoa, baina Euskadiren askatasuna bata bestearen ondotik emandako pausuekin etorriko da, ez kolpe batez. Hori utopikoa da. Nik ez nituzke anaiak elkarren aurka ezarriko."

ETA (m): "Ados naiz, indarren ideia garrantzitsua da, baina baita erlatiboa ere. Ikuspegi horretatik Euskadik egin dituen gerrak okerrak direla esan daiteke. Uste dut ideiak eta armak ezin direla elkarren aurka ezarri.

Euskaldunen arteko borrokaren arazoa ez da kontu erraza. Borroka hau erreala izango da, parte hartzen dutenak batetik (Espainiako Estatuaren aparatuaren barnean geldituko baitira) eta, bestetik, parte hartzen utzi ez zaienak."

EAE-ANV: Ados dago gerra ez dela amaitu eta presoak askatu gabeko gerrako preso izaten jarraitzen dutela esatean.

ETA (m): "Lehen galdera batzuk egin ditut eta oraindik erantzun gabe daude, bata Madril, PC eta abarrengandik zer espero daitekeen, eta bestea, 'bozkatzeko gogoari' ematen zitzaion arrazoiari buruzkoa."

EAJ-PNV: "Nafarroan eta Araban, inongo abertzalerik aurkeztuko ez balitz ere, arazoa bera da eta jendeak bozkatuko luke."

ETA (m): "Nik uste dut herritarren gehiengoa abertzalea dela, eta zuek ere bai, aurkeztuko bazarete dezente ateratzea espero duzuelako izango baita, eta gauza bera da."

ESEI: "Inora eramango ez gaituen arazo batean sartu gara. Uste dut komunean ditugun puntuak landu behar ditugula, nola amnistia, estatutua eta hauteskundeak. Nafarroa ere hor dagoela kontuan izan behar da eta han arazo nazionalaz hitz egitea kosta egiten da. Baina EKAk hobeto azal lezake hau."

EKA: "Bai, zaila da, baina ondo dakizuen bezala, guk egin egiten dugu eta kito. Dena den, baliatuko dut esateko berrikitan sortu den Fronte Nafarra (EAJ-PNV barnean dago), abertzaleen aurkakoa, nafarren

aurkakoa den jendea dela, ez dira fidagarriak. Gainera ez diot eraginkortasunik ikusten, ez eta iraupenik ere."

EAJ-PNV: "Garrantzitsua dena da Frontea zentzu autonomikoan engaiatu dela, eta bozka ez abertzalea bilduko dutela jakin arren, aurreko pausuan egongo da eta izatetik hurbil."

EKA: "Horrek guztiak Nafarroarentzat arriskutsua den hautagai-zerrenda bat babesten du."

ESEI: "Eztabaida desbideratzen ari da." Arreta puntu komunetan ezar dezatela galde egin die independenteei.

Mirentxu Purroyk hitza eskatu eta esan du hemen herriarekin jostatzen ari garela, itsasontziak ez duela kapitainik eta errua gurea dela. Izan ere, denok herriaren ordezkaritzat dugula geure burua, baina inork ez diola herriaren eskaerei kasurik egiten. Herriak batasuna eskatzen du. Zoritxarrez, esan du, Nafarroak ez diela abertzaleei emango bozka, ez duela abstentzioaren alde egingo, eta horrela gutxiago. Azkenean (eztarrian korapiloa duela), herriari traizio egiten ari zaiola esan du.

Isiltasuna.

EAJ-PNV: "Denok sentitzen dugu banaketa, baina euren indarra herriarrengan ordezkaturik ikusteko helburua ezin zaie ukatu alderdiei…"

EHAS: "Guk ezin dugu gure postura aldatu, ordezkatzen ari garen erakundearen erabakia baita."

ETA (m): "Lehen gauza garrantzitsu bat esatea ahantzi dut: baldintzak betetzen ez badira, masa-mobilizazioek segituko dute, baita ekintza armatuek ere. Eta ohartarazten dugu: gure jarduera ezin da hauteskundeen araberakoa izan, hauteskunde horietan zeinahik parte hartzen duela ere."

Ondoren, Mirentxu Purroy-ri azaldu dio egun jarrera antagonikoak badaude, gaur arte denen iritziak ezagutu ez direlako dela; izan ere, aurreko bileran erabaki zuten denek beren iritziak ekarriko zituztela.

"Garbi gera dadila maiatzaren 15etik jardun armatu erasotzailea hasiko dugula, jada ikasi dugu gauzak horrela bakarrik lortzen direla."

EAJ-PNV: "Errespetatzen dugu erabakia, baina horren erantzukizuna zuena izango da, eta ez du hemen zerikusirik."

ETA (m): "Nik baietz uste dut, guk dioguna da ezin garela parlamentu espainiar batek amnistia ez dakit noiz eman arte zain egon. Orain arazoa da ez parte hartzea kale itsuan sartzearekin alderatzen dela (erakunde berriak finkatu eta bazterrean gelditzeagatik). Baldintzarik gabe parte hartzeak, horrek eramango gintuzke kale itsura, bai amnistia lortzeko eta bai maila guztietan (Parlamentuan ez da ezer lortzen). Beraz, geratzen den bide bakarretik erakunde horiek desorekatzen saiatuko gara, Euskadin, izan ere, ezin ditugu aitortu haiek ez baikaituzte aitortzen. Eta erakunde horietan daudenek ziurrenik hautatu egin beharko dute."

Monzon: Independenteak une batez atera daitezkeen galdetzen du, gaia aztertu eta erakundeei proposamen bat egiteko.

Monzon, Alkateak eta Mirentxu Purroy atera egin dira.

Bergarako alkatea: Bi batzorde eratzea proposatu du: "batetik, bilera honetara deitutako erakundeak ordezkatuko dituen batzorde iraunkorra; eta bestetik, berehala Madrilera joango den batzordea, han egoeraren berri emango duena, herriarentzat bi erakunde armatuen jarrerak eta 47 Alkateren Taldeak dimititzeko hartu duen erabakiak zer ekar lezakeen, kaosa izugarria izango dela, eta abar."

ETA (m): "Gobernuak gauza bat jakin behar du: amnistia badago eta alderdi guztien jarduna eta gainerako guztiak onartzen badira, baketzea egongo da eta parte hartu ahal izango da, baina baketzea egongo da haiek erreprimitzen ez duten artean, noski; bestela, erantzun egingo dugu."

ESEI: Ados dago.

Bergarako alkatea: Maiatzaren 15eko egun a 24ra alda dezagula eskatu du, denbora gehiago izan dezagun, honela beren dimisioarekin bat egingo genuke.

ETA (m): Pentsatuko du.

Monzon: Batzorde Iraunkorra eratu dela jakinarazteko komunikatu bat argitara dadila komeni dela uste du.

ETA (pm): Beste batzordearen berri ere, zer egiten duen eta Gobernuari zer eskatzen dion, jakitera ematea eskatu du.

ETA (m): Ados, zehaztu du duintasun gramo bat ere galdu gabe egin dadila.

Denak ados, EAJ-PNV izan ezik.

EAJ-PNV: Uste du ez dela komeni ezer argitaratzea Gobernuarekin mintzatu aurretik, gaizki interpreta baitezake. Herriari gero esatea eskatu du.

Azkenean, ez zaio garrantziarik eman, presakoa baita, eta Gobernuarekin hitz egin arte itxarongo da.

Batzorde Iraunkorra: LAIA (bai), EIA, EHAS, Eusko Sozialistak, EKA, ESEI, ESB, EAE-ANV eta EAJ-PNV. Alkateen Batzordea eta Monzon?

Bergarako alkatea: Monzon Batzordean sar dadila proposatu du.

EAJ-PNV: Ez du ezer aurka, baina inor ordezkatzen ez duten pertsonak sartzea ez zaio oso egokia iruditzen eta abar (ez dio ezer argirik).

ETA (m): Monzon sartzearen alde dago, bera izan da bilerak aurrera egin dezan gai izan den bakarra bere planteamenduarekin, parte hartu bai edo parte hartu ez alde batera utzita.

EKA: Alderdi gehiago nola sartu galdetu du, hau da, zabaltzeko mekanismoa zein den.

Gehiengoaren 2/3 beharko dela erabaki dute.

Monzonek alderdi praktikoari ekin dio: "Nork deituko du? Non egingo dira bilerak?"

EAJ-PNV: "Helbide ofiziala Hego Euskadin egon behar da, han izango baitute oihartzuna erantzunek."

Ipar Euskadiko ordezkaria Monzon izango da, eta Hego Euskadikoa, Bergarako Udala, eta ordezkariak, Alkateen ordezkaritza. Bi aldeetan, idazkaritza edo koordinaziorako zentro gisa jardungo dute.

EKA: "Edozein erakunderen ekimena aski izango da bilera deitzeko."

ESEI: Jarraitutasuna ikusten dio eta Batzordea instituzionalizatzea beharrezkoa dela uste du.

ETA (m): "Ez dago presaka ibili beharrik, orain gauza zehatz baterako eratzen da, lehen pausu gisa, gero etorriko da gainontzekoa."

Bergarako alkatea: "Nork hartuko du kontaktuak egin eta Gobernuarekin elkarrizketak hasteko ardura?"

EAJ-PNV: "Ez legeztatuei ez diete hitz egiten utziko."

ETA (m): "Alderdi guztien ordezkaritza duen batzorde bat joan daiteke, bakoitza zein erakundetakoa den esan gabe, arazoa saihesteko."

Elkarrizketak kudeatzeko ardura Alkateek hartu dute.

EAJ-PNV: Batzorde txiki bat joan behar dela uste du, arrazoi psikologiko batengatik, izan ere, asko direla ikusten badute, ez dira fidatuko. Lehenik, Alkateak ados daudenez, bederatzi joaten saiatuko dira bederatzi erakundeak ordezkatuz. Kaltegarria dela irizten bada, batzorde txiki bat egingo da eta KASeko, EAJ-PNVko, EKAko kide bana eta, beste guztien ordezkaritzan, beste bat joango dira.

HIRUGARREN BILERA (1977-05-12)

Euskal erakunde politikoen bilera

Deitutako guztiak bildu dira, ES izan ezik: EAJ-PNV, EAE-ANV, ESB, EKA, KAS (EHAS, LAIA (bai), EIA), ESEI, ETA (pm), ETA (pm)', ETA (m), Alkateak, Monzon eta *Punto y Hora.*

Bergarako alkatea: Suarezekin bildu aurretik landutako agiria banatu du, han uzteko asmoarekin eta sarrera gisa balio dezan, gero mintzatzen hasi da (II. eranskina, ikus 121. orrialdea).

"Aurreko bileran erabakitakoa esan genion Suarezi, hau da, amnistia eta askatasunen beharra dugula, bestela erakunde militarrek erasoaldiari ekingo diotela berriz, alderdi politikoak hauteskundeetatik erretiratu eta boikot aktibora pasako direla eta Alkateek dimisioa aurkeztuko dutela."

Bi ordu iraun zuen elkarrizketari buruzko bere inpresioa azaldu du, besteek egoki deritzotena zehaztuko dute.

"Suarezek ez zuen agiria onartu. Jarrera horren arabera, ez zuen inongo interesik, baina gero kontraesanean erori zen. Izan ere, gurekin ados zegoela esan zuen ia, amnistia osoaren alde zegoela eta denbora guztian Gobernuaren ahultasunari buruz aritu zen, nahi duena egiteko duen ezintasunari buruz. 'Keinu' baten aukera utzi zuen, eta ondorioz, 4 edo 5 preso gehiago askatuko zituztela. Hauteskundeak igaro ostean denak aterako zirela iradoki zuen. Presoekin hitz egin zitekeen galdetu genionean, baimena eskatzeko esan zigun.

Erakunde armatuei dagokienez, jarrera irmoa erakutsi zuen: desagerrarazi behar ziren. Ez zuen aurreko gobernuek bezala hanka sartu nahi, burutsuagoa izan nahi zuen, eta batez ere, Europaren eta nazioarteko hitzarmenen babesa nahi zuen."

EAJ-PNV: "Suarezi arazoa interesatzen zitzaiola zehaztu behar da, izan ere, bi ministro zain zituen arren, ez zezatela gogaitu eskatu zuen. Asko poztu zen euskal alderdiekin aurrez aurre mintzatzeko aukera izateagatik. Bere Gobernua ez zela aurrekoen jarraipena esan zuen. Bere ahultasuna azpimarratu zuen, eta adierazi berak ezin zuela erabakirik hartu erabaki horren ondorioak kontrolatu ezin izateagatik, demokratizazioa arriskuan jartzen bazen. 'Keinu' bat egiteko aukera iradoki zitzaionean, gogoan hartu zuen. Adierazi zuen ez zuela presoen inongo laguntzarik jaso eta hauek erbesteratzea eskatu ahal izan zutela. Erdibideko aterabidea izango zatekeen. ETA (pm)'-ri hitz eman bezala, 4 presoetarik 3 kalean zirela eta laugarrena aste hartan bertan aterako zela. 'Demokratizazioa' bultzatuko zuela kosta ahala kosta. PC legeztatu eta presoak ez askatzearen kontraesanaz, esan zuen PCk erraztasunak eman zituela, eta orain gureagatik ahal zuena egingo zuela."

ESB: "Suarezek karta guztiak irabazi ditu, Euskadikoa izan ezik, eta horregatik hartu zuen gaia pertsonalki. Bestalde, ziur zen hauteskundeak irabaziko zituela. Europaren egonkortasuna Espainiaren egonkortasunetik pasatzen zela, eta beraz, Europaren laguntza izango zuela, eta zituela bestek egindako hanka sartzeak errepikatuko. 'Ultren' eta atentatu terroristen beldur direla ulertzera eman zuen."

ETA (m): "Eta ez zenioten esan berak eskuin muturra kontrola dezakeela?"

Bergarako alkatea: "Ez zuen hain argi esan, baizik eta Madril eskuin muturreko jendez betea zegoela, eta bera hari baten gainean zegoela: 'bai eskuinetik eta bai ezkerretik tiraka ari dira, norantz noan edo norantz erortzen naizen ikusteko', esan zuen."

EAJ-PNV: "Aberri Egunari buruz galdetu zitzaionean (orduan ateratzekoak ziren presoak), berak ez zuela deusik hitz eman esan zuen, bere nahia hori zela baizik ez omen zuen adierazi, eta Jauregui ez zegoenez bertan, ezin izan zuela interpelatu. Oroitarazi zuen Jaureguik egindako oharrak presoen espedienteak geldiarazi zituela."

EHAS: "KASen ordezkariaren iritzia ere eman beharko da. Madrildik lur jota itzuli zen, hiru arrazoiengatik funtsean: 1. Komunikabideek batzorde honi emandako tratuarengatik, batzorde negoziatzailearen ordezko zela esan baitzuten; 2. Bilera Suarezek zituen arazoak esplikatzera lerratu baitzen eta ez Euskal Herriaren arazoak; eta 3. 'Keinuei' buruz egin ziren oharrengatik, hortaz ez baitzen hemen ezer erabaki aurreko bileran."

> Ondoren, ordezkariak bileraren ostean egin zuen txostena irakurri du (I. eranskina, ikus 120. orrialdea).

Bergarako alkatea: "Lehenengoari dagokionez, infiltrazio bat egon da eta, horren ondorioz, gobernadorearekin liskarra izan dut, KAS han zegoela ageri da-eta (legez kanpoko alderdiak ezin ziren bertan egon eta pixka bat estali zen, Suarezengana denen ordezkaritzan joan ginen arren). Dena den, ez dago bertsio horrekin erabat ados."

EAJ-PNV: "Infiltrazioa nondik atera den ikertzen ari gara."

Punto y Hora: "Bilera egin eta hurrengo astelehenean, telex bat heldu zitzaidan albistearen berri emanez, harri eta zur gelditu nintzen, deus ez esatekotan gelditu baikinen."

ESEI: "KASen izenean joan zenak hemen behar luke."

EIA: "Ez da posible izan, konpromisoak zituen."

EAJ-PNV: "Ez nator inondik ere bat EHASen iritziarekin, Madrilen Euskadiren arazoez mintzatu ginen. Argi dago presidenteak bere jarrera argudiatu behar zuela, eta han ai-

patu ziren 'keinuak' presoak ateratzeko duen borondate onaren erakusle ziren; eta adarra jo izanari buruz, hemen adierazi nahi den bezala, nik ez nuen ezer sumatu eta badut sentitzen dudana esateko nahikoa jenio bizi."

Bergarako alkatea: "Egia da antzerki asko egin zela eta, batez ere, bere papera bete zuela, noski."

EAE-ANV: "Bera han egon bazen, hitz egin zezakeen eta ikusten ari zena esan."

ESB: "Adarra jo zitzaigula eta gutxiegikeria egon zela erabat ezeztatzen dut. Erabakitakoa mahaigaineratu zen han."

ETA (m): "Hori ez, zeren hemen ez zen 'keinuei' buruz ezer esan, baina bai osoak eta duinak izateari buruz."

ESB: "Han garbi adierazi zitzaion, izan ere, gure herriarentzat presoa heroia dela bazekiela ere esan zuen, eta ados egon ez arren, hori onartu beharra zuela. Nolabait denak atera ginen atsekabetuta, izan ere, oso argi ikusi baitzen ez zutela amnistia emango."

ETA (m): "Aurrera egin behar da, amnistia ez dute emango, Suarezek ziniko hutsa dela erakutsi du ateak irekita utziaz. Gauzak ez dira aldatu, 7 urtez erbestean egon den bat atxilo dago orain, beste bati komisarian esan diote ibil dadila orain, hauteskundeen ostean ezin izango baita ibili."

EAJ-PNV: "Polizia bati ezin zaio sinesgarritasunik eman."

EHAS: "Dena dela, hori da dagoen giroa."

Monzon: "Ororen gainetik, Batzordea zoriondu nahi dut, normala da jendea atsekabetuta ateratzea. Beti gertatzen dira horrelakoak. Baina egia dena da, eta horri arreta jarri behar zaio, herriarekin jostatzen ari direla."

EAE-ANV: "Euskaldunei botere politikorik ez emateko presoak bahituta zituela esan zitzaion, eta onartu zuen."

Monzon: "Pozten naiz, eta normala da hori egitea, izan ere, espainola da eta hori da bere eginbeharra, gure eginbeharra aldiz, adarjotzea, iseka edo dena delakoa dagoela ohartzea den bezalaxe.

PCren legeztatzea albo batera utziaz (horrek esan nahi duen guztiarekin!), hitz egin dezagun Pasionariaz, deabruaren beraren sinboloa da, infernuko ateak ere irekiko dituzte etor dadin, baina ez dira ausartzen presoekin gauza bera egiten. Egia esan, ezin dut sinetsi.

Bestalde, Espainiak eta Frantziak Euskal Herria galdu dute. Hain juxtu ere orain, Frantziako Barne ministroa eta Martin Villa (eta 'Guardia Zibilaren zuzendaria', zehaztu du ETAk) bilduta daude. Gainera futbol taldearen kontuak harritu nau, nola esan dezake hori bere kolaboratzaileez? Horrek alderantziz dela pentsatzera eramaten nau (I. eranskina aipatu du, ikus 119. orrialdea), eta aurkariaren alde jokatzen duen gutxi dagoela. Nahi dutena gu zatitzea da."

ESEI: "Beti saiatu izan dira guri ziria sartzen. PCren legeztatzea Europari begira interesatzen zaie eta gu interes horietatik kanpo gaude, ez gara inoren interesekoak. Indar harremanen arazoa da. Demagun egia dela ezin dela amnistia eman, hau ere indar-korrelazioen arazoa da, eta beraz, joan den egunean hitz egindakoa hor dago: zein da amnistia lortzeko metodorik egokiena?"

ETA (m): "Iritziak entzun ondoren eta beti aurrera begira, guk zenbait zaplasteko emango ditugula esan behar dugu. Gure arazoa, espainolek zer egiten duten alde batera utzita, konplexuagoa da nazio zapaldua garenez. Horregatik eskatu nahi dut gura ekintzak ez daitezela gaitzetsi eta 'terrorista' eta 'kriminal'tzat jo, arazoa hain handia denean.

Bukaeratik hasi naiz, inguru-minguru ibili beharrik ez izateko."

Oiartzungo alkatea eta ESB: Monzonek esan bezala, zatitu nahi gaituztela uste dute, Gobernuak erakunde militarrekin dituen elkarrizketei buruz hitz eginez eta abar.

EKA: "Suarezentzat larriagoa zen PC legeztatzea amnistia ematea baino, baina badaki hariak ongi lotzen. Madrilen abokatuen hilketa gertatu zenean ongi erakutsi zuen. Madrilen 'bere' arazoa hainbeste entzun izana deitoratu behar dut, errua inori egotzi gabe, zeren seguraski nik gauza bera egingo nuen, baina gizon honek trebetasun handia du gauzak bere aldera eramateko. Ni han ez egoteari dagokionez, betoa jarri zitzaidala argitu nahi dut eta nik ez nuen Batzordearen jarduna trabatu nahi hemen erabakitakoa egin zezan."

Bergarako alkatea: "Legez kanpoko alderdien ordezkari bat baino ez zuten onartzen eta hautagai independente gisa ager zedila eskatzen zuten, gainera."

Alkateak: "Amnistiari dagokionez, Suarezek garbi esan zuen Gobernuak amnistia eman nahi zuela." Ondoko proposamena egin dute: "Nazioarteko ordezkariekin konpromisoa sinatuz proba egin dezala edo holako zerbait; baina, hau egitekotan, indar sinatzaileen arteko erabateko solidaritatea behar da."

ETA (m): "Baina arazoak bere horretan darrai, zeren horrek beren dinamikan sartzea dakar, hau da, egun armadak ez du nahi, bihar bai, eta abar, eta beraz, zain egotea dagokigu. Hori herriak amore ematea da. Ezin da amore eman, haiek nahi dutenean eta, batez ere, jakinik gero gauzak aldatuz gero, eta gauzak alda daitezke, gehiago erreprimituko gaituztela."

Alkateak: "Ez dut uste amore ematea denik."

ETA (m): "Amore ematea da, nahi duzuna amnistia denean, konpromiso bat sinatzen duzunetik berak hori soilik onartzen duelako. Beraz, berak nahi duena egiten duzu, ez zuk nahi duzuna."

EAJ-PNV: "ETA Militarrak bere jarrerarekin koherentea den azalpena eman du, baina besteok ere gure interpretazioa eman dezakegu. Ez nago ados ikuspuntuak era horretan absolutu bilakatzearekin. Zuk amore emateaz diharduzu, 'amore eman', baina nik aurrera egin esan dezaket, 'aurrera egin'. Kontua da haiek indartsuagoak direla. Zure bidetik paretaren kontra egingo genuke."

Monzon: "Zuk diozun moduan zerbait lor daitekeela uste duzu?"

EAJ-PNV: "Indarrak elkartuta, indartuko gaituzten askatasun-mailak eskuratu ahal izango ditugu."

ETA (m): "Egia da indartsuagoak direla; eta horrek, egiazko demokrazia batean, arrazoiaren indarra erabiltzera eramango gintuzke, baina aukera suertatzean norbera hiltzeko prest dagoenaren aurka, argudio horiek ez dute balio, zu aurrea hartzen saiatu beharko zara. Harrigarriena darabilten argudioa da: armadak ezin dituela 'demokratizazio' guztiak batera irentsi, demokrazia orotan armadak inpartziala izan behar duenean. Ez diot denetan hala denik, baina hala behar luke, eta askotan hala dela adierazten dute."

Bergarako alkatea: "Saiakera bat egiteagatik ez dugu ezer galduko."

ETA (m): "Esaten dudana da herritarren lorpen guztiak herri-borrokaren eta jardun armatuaren bidez egin direla. 'Presidente jaunak' ez du ezer ematen, kendu egin behar zaio."

Punto y Hora: "Batetik, ETA (pm)-k zer elkarrizketa dituen ez dakigu. Zer ondorio izan dezakete ekintza armatuek? Hemendik aurrera jarraitu beharreko estrategia pentsa-

tu behar da, postura ezberdinak zein diren ikusi, ahal den heinean batzeko. Gainera, gauza larriak gertatzen ari dira, infiltrazioak kasu, eta bestela ere nahikoa etsai dugu aurrean. Herria da oraindik ere ezezagun handiena. Irizpide ezberdinak daude, baina oinarri komunetan bil ditzakegu."

EAE-ANV: Ados dago, eta dio "Gobernuak presoak bahitu gisa atxikitzen baditu eta hori onartzen badu, gu zatitzea baino ez duela helburu. Horrenbestez, jarraitu beharreko taktika ezberdinak bildu beharra dugu."

Monzon: "Jaureguik telefonoz esan zidan ETA eta Suarezen arteko elkarrizketak oso ongi zihoazela."

ETA (m): "Gobernuarekin ditugun harremanak azal ditzakegu. Hasieran, elkarrizketak hasteko baldintza bezala amnistia osoa eta askatasunak ezarri genituen, negozia ezineko bi baldintza ziren, eta horiek bete ezean, ez ginen elkarrizketak abiatzeko prest. Gero errefuxiatu bat etorri zitzaigun eskutitz batekin, bertan esaten zutenez 3 edo 4 hilabeteko su-etenaren truke, presoak askatuko zituzten. Beste eskutitz batekin erantzun genien ezin izan genuela ETArekin harremanetan jarri, baina kartzeletan zeuden preso guztien bidez lor zitekeela hori, eta gutako batek sinatu zuen. Bigarren aldian, kontrola ezin genezakeen komandoren bat atxilotzen bazuten bestaldean, itzul ziezagutela. Egia esan, ezin diegu sinetsi, zeren Itsasukoak hil berri dituzte, eta kontuan izan beharreko beste kontua da preso guztiak askatuko zituztela esan zutela, eta orain zuei ezetz esan dizuete."

ESB: "ETA horren alde zegoen ala ez jakin nahi zuen Suarezek, noski."

ETA (pm): "Ez dugu Gobernuarekin hitz egin zen guztiaren berririk, baina bai orokorrean, eta salatu nahi dut erakunde politiko-militarraren zati batek Gobernuarekin harremana izan duela erakundearen ordezkari izan gabe, eta gainera, ez dute herriaren eta gure interesekin jolastu baizik egin."

Punto y Hora: "Oso larria da inor kontuan hartu gabe alde bakarreko negoziazioak izatea."

ETA (pm)': "Hasieran etorri zirenak ia bidali egin genituen, gero beste bat etorri zen aurreko jarrera berriz hausnartuz, itun bat eskatzen ziguten. Aberri Eguna baino lehen presoak kalean baziren eta Aberri Eguna legeztatua, hau da, baimendua, berriz hizketan hasiko ginela erantzun genien. Gero, elkarrizketak hasiko balira, (maiatzaren) 24rako preso guztiak askatzea ezarri genuen baldintza gisa; borondate ona bazegoela frogatu beharra zegoen zerbait nahi bazuten. Batzorde hau eratu eta gero ez da inongo gestiorik egin, izan ere, batzordea izendatu zenetik dena hausten zela esan zitzaien, eta handik aurrerakoak batzordearekin izango zirela."

Monzon eta Alkateek uste dute gu gehiago zatitzea baino ez dutela nahi, batzuei ETA(pm)'-k honakoa dioela esanez, besteak hurrengoa dioela.

Denak ados daude.

ESEI: "ETAk herria askatzeko prozesuaren baitan kokatu du amnistia eta hori oso garrantzitsua da, orain ez gara beste gaiekin desbideratu behar, gaia zentratu behar dugu. Pertsonalki, Elkorok bere azalpenarekin segi dezala iradokitzen dut."

Alkateak: "ETA Militarrari entzun diogunez, duela hilabete, Gobernua presoak askatzeko prest zegoen, eta orain ez, nahasia geratu naiz, eta Madrilen benetako antzerkia egin zutela pentsatzera eraman nau horrek."

EAJ-PNV: "Baina denbora asko igaro da ordutik."

Bergarako alkatea: "Bai, baina saia daiteke dena den, bermatzaileekin."

ETA (m): "Gobernu zapaltzailearen sinadura eta paperak komuneko papera dira. Gogoratu behar da, atera den txostenaren arabera, Suarez Mugimenduaren idazkari orokor eta ministro zela, egin zela Montejurrakoa, eta horretarako 15 milioi pezeta eman zituela. Zer konfiantza eragin diezaguke? Badirudi geure buruei sinestarazi nahi diegula oso onak direla eta gure arazo guztiak gogotik konponduko dituztela."

EKA: "Bai, hori egia da, badirudi orain Fragak horren errua Suarezi egozten diola, beno…"

Bergarako alkatea: "Hemen zaudetenok ia herri osoa ordezkatzen duzue, gutxiengo batzuk izan ezik, hortaz, akordiorik balego gerra irabaziko genuke. Hori egin behar dugu eta estrategia egokia bilatu."

Monzon Bergarako alkatearekin erabat ados dago: "Hemendik akordioa eskuetan atera behar da. Egia da beste erakunde batzuk ere badaudela, baina horiek ezingo liokete akordioari aurka egin hemen, ezinbestean atxiki beharko lirateke. Gobernuak bilatzen duenaren aurkakoa egin behar da, eta Euskadin, Madrilen eta Europan zartako bat eman beharra dago, plasta!"

ESEI: "Suarezek ez duela ezer eman nahi ohartu garela pentsatzea inozoa izatea da, behin eta berriz, hori esaten ari gara. Uste dut elkarrizketa ez dela nahikoa aztertu."

ETA (m): "Hauteskundeetan parte hartzeko amnistia eta askatasunak eskuratu ahal izateko azken aukera zen elkarrizketarena. Orain, ez atzera ez aurrera gaude. Dakigun bakarra da ez dutela ezer emango. Hori da Madrilgo bileratik ondorioztatu dena."

Atsedena hartu eta gero.

Monzonek proposamen bat egin du: "Bilera hauen klandestinitatea gaur berean eten behar da. Hemen gertatu denaren berri herri guztiari eman behar zaio. Komunikatu bat herriarentzat."

ESB: "Suarezekin izandako elkarrizketa ere atera behar da."

Denak ados daude.

ESEI: "Inork ezin du bere aldetik egin eta erantzukizunak egotziko litzaizkioke."

EHAS: "Zer egingo dugu komunikaturako falta diren bi erakundeekin?"

EHASek ESren ardura hartu du, eta LAIA geroxeago agertu da.

EAE-ANV: "EIAk prentsarako ohar bat atera du eta, nahiz eta oharra ongi zen, ez zuen bere aldetik bakarrik halakorik egin behar."

ESEI: "Hemendik aurrera holako gauzak batzorde gisa egingo dira, inoiz ez bestela."

ESB: "Bozeramaile ofizial bat behar dugu, oso teknikoa da hori, baina behar dugu."

ESEI: Bozeramailea Bergarako alkatea izan dadila proposatu du, alderdien interesik ez baitu eta prentsarekin paper ona jokatu baitu.

EAE-ANV: Atzerrirako eta Ipar Euskadirako Monzon proposatu du.

Denak ados, eta gainera, aurreko bileran aipatutako koordinatzaileen proposamenarekin bat egin dute.

ETA (m): "Arazoaren muinera jo behar da, hauteskundeetan parte hartuko dugu ala ez?"

ESEI: Ez dago planteamenduarekin ados, eta beste ekimenik ba ote dagoen galdetu du.

EAJ-PNV: "Ezin dira gauzak horrela hartu eta era antagonikoan planteatu. Honek luzera izan dezake aterabidea."

EIA: "Gu zatitzeko Gobernuak egin duen saiakerari erantzun beharra dagoela erabaki dugu lehen, elkarrekin erantzun ere. Zertan eragin dezakegun ikusi behar da. Horrenbestez, ados nago ETA Militarrarekin, eta lehen pausua abstenitu ala parte hartu erabakitzea da."

EKA: Hartutako hautabideak berriz hausnartu daitezkeen galdetu die, bai ETA Militarrari bai jarrera itxia agertu duten gainontzeko erakundeei.

ETA (m): Ezin du hemen erantzun, baina printzipioz ezer ez da itzulezina.

EAE-ANV: (Maiatzaren) 24a arte postura bateratua azaltzeko eskatu du, Suarezen aurrean indartsu agertzeko eta hauteskundeak baino astebete lehenago alderdi bakoitzak bere hautua egin dezala.

ETA (m): "Ezin da hainbeste atzeratu, zeren eta, gero zer? Guk ezingo dugu gure ildo politikoa aldatu, besterik gabe."

EIA: "Baina, kanpora begira, amnistiarik eman ezean, ez garela hauteskundeetara aurkeztuko esan behar dugu, eta ez ondoren bakoitzak aztertuko duela."

Monzon: "Bi postura daude hemen: batetik, ETA Militarrak dio hilaren 15etik aurrera erasoaldia hasiko duela, eta kitto; eta bestetik, EAJ-PNVk dio hauteskundeetara joango dela, eta kitto. Nik EAJ-PNVri eskatuko nioke hilaren 24a arte itxaroteko, ETA Militarrak ordurako berriz hausnartuko duela esan baitu eta denbora gutxian aldatu baita (aurreko bilera (maiatzaren) 15etik 24ra aldatzeari buruz ari da. Baiezkoa erantzun zuen, baina ekintzaren bat 15etik 24ra bitartean bakarrik egin bazitekeen, egin egingo zuela). ETA Militarrak atzera egin badu, horrek esan nahi duenarekin, zuek ere egin dezakezue."

ETA (m): "Gobernuak badaki EAJ-PNVk hauteskundeetan parte hartuko duela eta inguruan zalantzan dauden alderdi gehiago badagoela. Orain arteko erantzun bera emango dute."

EAE-ANV: "Bai noski, baina beste indar batzuekin konpromisoak eta itunak dituen jendea ere badago eta ezin dute atzera egin."

ESEI: "Berriz ere aurrez aurreko jarrerak ditugu."

Monzon: Bilerara jarrera itzulezinekin ez etortzeko eskatu du.

EAJ-PNV: "Gauzak seriotasun handiagoarekin hartu behar dira, Alderdiak joango dela esan du, eta joan egingo da."

Monzon: "Eta ETA Militarrak ere esan du."

EKA: "Hemen denek esan dute zerbait, guk ere bai parte hartzearen alde. Baina orain beste faktore bat sartu da: ofentsiba bateratua egitea. Funtsezkoa da eta abstentziora pasaraz gaitzake. Ikusi behar dena da ea ETA Militarra bere postura aztertzeko prest dagoen."

EIA: "Postura definitua duten erakunde gehiago ere badago, KAS, esaterako, eta ez dute hauteskundeetan parte hartzeko asmorik."

EAJ-PNV: "Bakoitzak har dezala bere erantzukizuna."

EKA: "Ekintza ofentsibo bat herriarentzat kaltegarri izango dela uste badugu eta saihestu daitekeela, erantzukizuna denona izango da."

Monzon: "Ezer ezin da itzulezina izan."

EAJ-PNV: "Alderdiaren Erakunde Gorenaren erabakia da, nahiz eta, noski, ezer ez den itzulezina."

ETA (m): "EAJ-PNVk uste du presoak hauteskundeen aurretik askatuko dituztela?"

EAJ-PNV: "Ez."

Punto y Hora: "ETA Militarrak uste du presoak ekintzen ondotik askatuko dituztela?"

ETA (m): "Ez."

ETA Militarreko kide batek, hala jasota gera dadin eta bere izenean ari dela azpimarratuz, ondokoa proposatu du: "Hauteskundeak baino astebete lehenago preso guztiak kalean ez badira, erakunde guztiek beren hautagaitza juridikoak erretiratu eta abstentziora pasako lirateke; erakunde militarrek egun horretara arte itxarongo lukete kanpaina militarra hasteko, baina akordioa gauzatzen den egunetik jakitera emango litzateke."

EKA: Pertsonalki ados dago, Erakundeari jakinaraziko dio ahalik eta lasterren erantzuteko.

Alkateak: Ados.

EAE-ANV: Ados.

EHAS: Pertsonalki ez, gainera KASekin konpromisoak dituzte eta hauei garrantzia handiagoa ematen diete. Aztertuko dute, baina utopikoa deritzo hori lortzeari, nahiago du epea aldatzea, astebete lehenago izan beharrean, hautagaitzak 15 egun lehenago erretiratu beharko lirateke, eta gainera, egun horretara arte, abstentzio aktiboaren aldeko propaganda egingo litzateke, eta ez parte-hartze baldintzatuaren aldekoa.

ESB: Ados dago.

ETA (pm): KASekin konpromisoa dute, baina aztertuko dute.

ESEI: Aztertuko dute.

EAJ-PNV: Aztertuko dute.

ETA (pm)': Ados.

EIA: KASekin konpromisoa duten arrean, postura hau defendatu eta honen alde egingo dute KASen. Ados daude.

Monzon: "Zer epe ezarriko da erantzunak emateko?" Berak biharamuna proposatu du.

> Hurrengo larunbata jarri da epemugatzat, arratsaldeko 3ak.
>
> Bi dira proposamenak, bata hautagaitzak ekainaren 8an erretiratzea da, eta bestea, hilaren 1ean.

EKA: Proposamena maila pertsonalean den arren, eskatu du talde bakoitzak onartzea edo ez onartzeari buruz bere irizpidea eman dezala.

ESEI: Proposatu duenak bere proiektuaren berme gehiago eman dezala eskatu du.

ETA (m): Gainerakoei lehenago egiteko eskatu die. Talde honetako bi kide proiektuaren aurka agertu dira.

EIA: Astebete edo bi astera bi aukerei buruzko erantzunak ekartzeko eskatu du.

EAJ-PNV: "Abstentzioa ala parte hartzea hautatu beharra bada dena, mahai hau desagertu eta hautsi egiten da. Beste zerbaitek izan behar du oinarri."

ESB: "Zerk?"

ESEI: ETAko lagunak aterabide posible bat planteatuta erakutsi duen abertzaletasuna eskertu nahi duela adierazi du.

EAJ-PNV: "Kontsulta-mahai izan daiteke hau, ezin da mahaia egotea bipolarizatu, gauza asko egin daiteke."

Monzon: Herria ordezkatzen duen erakunderik ez dugula esan du berriz eta orain dugula hori egiteko aukera.

ETA (m): "Baina ezin da euskal gobernurik

egin batetik boterearen aurka gerrara joan nahi dutenekin eta bestetik boterera doazenekin. 1936an, EAJ-PNV eta PCren arteko ezberdintasunak handiak izanagatik, biak elkarrekin joan ziren gerrara. Etorkizunean elkarrekin lanean hasi aurretiko pausua, hauteskundeei buruzko akordioa lortzea da."

ESEI: Nazioarteko erakundeentzako amnistia eta gainerakoei buruzko telegrama bat atera dadila eskatu du. Bilera hau egiten ari direla denek badakitela ohartarazi du.

EKA: Proposamen interesgarria dela deritzo.

> Eztabaida baten ondoren, herriarentzat ohar bat idaztea erabaki da, helaraz daitekeen prentsa eta irrati guztien bidez emango da horren berri (idazkia ezagutzen duzue, gero idatzi zen txostenean agertu baitzen). (Ikus 127. orrialdea)

EAJ-PNV: "Idazkiak Suarezekiko elkarrizketak erabat hautsi direla esan nahi duela dio."

ESB: Ados dago.

EIA: Batzordeak ez duela izaera negoziatzailea era eszizituagoan adieraztea nahi luke.

EAJ-PNV: Leunagoa egin nahi zuen.

Gaur berean emango zaie idazkia agentziei.

LAUGARREN BILERA (1977-05-14)

Euskal erakunde politikoen bilera

> Bertaratuak: LAIA, EHAS, EIA, ETA (pm), ETA (pm)', EKA, ESB, ESEI, EAJ-PNV, ETA (m), Monzon eta Alkateak.
>
> Falta da: EAE-ANV.

Monzonek ondoko gai-ordena proposatu du:

> 1. Azken gertakariak komentatu (hiru hildako, amnistiaren aldeko kanpaina), Euskadin egoera aldatzen ari dela eta norabide bat falta dela zehaztuaz.
>
> 2. ETA Militarreko kidearen proposamena, Erakundeak bere egiten du? Gainerakoek onartzen dute?

Bergarako alkateak oharra zein egunkaritan argitaratu den adierazi du: "*La Gaceta del Norte*, Bilboko *Herri Irratia*, eta gutxi gehiago; oro har, ondorengo berriek lekua kendu diote."

Monzon: Moderatzailea da eta erakundeei beren iritzia galdetu die.

ETA (m): "Suarezen 'demokrazia'ren beste erakusle bat."

EIA: "Bizkaitik datoz eta greba Euskadi osora zabaltzeko kontzientzia argiarekin, sekulako iskanbila dago."

Punto y Hora: "Nafarroak momentuan berean erreakzionatu du, orain arte 2 egun behar izaten zituenean, hildako bat izan da, hainbat zauritu, 40 edo 50 atxilotu, suzko barrikadak, urgentziazko udalbatzarra…"

EAJ-PNV: "Araban istiluak izan dira, 4 edo 5 zauritu makatuak, eta autoak gurutzatuta…"

Moderatzailea: "Oharra bidali dut Alemania, Holanda, Belgika, *Radio Paris*-era,

eta azken honetan, komunikatua ia osorik irakurri dute, baina erakunde armatuen sinadura kenduta."

***Punto y Hora*:** "Kataluniako prentsak Madrilgoak baino hobeto jokatu du oharrari dagokionez, egunkari gehienek lehen orrialdean argitaratu dute, aipagarriena *Mundo Diario* izan da, izan ere, oso komentario ona egin du."

Moderatzailea: ETA Militarrari hasteko eskatu dio, eta proposamenari buruz duen iritzia eman dezala.

ETA (m): "Gertatuak gertatu, ekintzak egiteko ez gara itxarotearen aldekoak, uste dugu hautagaitzak berehala erretiratu beharko liratekeela, baina EAJ-PNVk du hitza, zeren ados badago, hauteskundeak baino 15 egun lehenagora arte itxarotea onartuko genuke, nahiz eta ez gauden alde."

ETA (pm): "Ados gaude ETA Militarrarekin, baina konpromisoa gaur har dadila eskatzen dugu, ezin da erabakitze aldia gehiago luzatu."

ETA (m): Gaur berean egitearekin ere ados dago.

EIA, LAIA (bai) eta EHAS: Biekin ados dira.

EKA: "Akordio bateratua badago, proposamena onartzen dugu."

ESB: "Guk ere bai."

EAJ-PNV: "Hauteskundeetara aurkeztu behar dela uste dugu, herria bozkatzera joango da eta ez du inongo alderdi abertzalek ordezkatuko. Dena den, aurreikusi bezala, jende hori bozkatzera joateko modukoak dira baldintzak. Egungo egoera gorabehera, egungo Gobernuak hauteskundeak egitea ahalbidetuko du. Proposamen horretan kaleko istiluetarako bidea baino ez dugu ikusten. Eta ez joatea herriari traizio egitea litzateke. Hauteskundeetan parte hartuko dugu. Egoera alda dezaketen gauzak gerta daitezke hilabete honetan, baina une honetan hori da gure jarrera."

Moderatzailea: "Hori da ETA Militarraren proposamenari ematen diozuen behin betiko erantzuna?"

EAJ-PNV: "Ezin da alderdi bat hertsatu, eta gutxiago erakunde militarrek."

ESEI: Erabaki bateratua bada, onartzeko prest agertu dira, baina alderdi abertzaleek utzitako hutsunea beste batzuek beteko dutela uste dute.

Bergarako alkatea: "Lehengo iritzi bera dugu, (maiatzaren) 24an dimisioa aurkeztekoa, alegia, eta gure herriari ez bozkatzeko esango diogu. EAJ-PNV ez da koherentea izan bere buruzagi batzuek esan dutenarekin, hau da, amnistiarik ez bazen ez zutela parte hartuko. Eta horrek eragina izan du gure erabakian."

ETA (m): "Ez da mehatxurik egon; ados ez daudenei joan daitezela eskatzen diegu idazki bat egin dezaten."

EAJ-PNV: "Alderdiak herriaren alde egiten du, beste alderdiek ez digute presio egingo, eta nahi nuke mehatxu horiek agerikoak izatea, eta ez ezkutukoak. Eta nik esana aktan jasota gera dadila."

ETA (m): "Ez da mehatxurik."

EAJ-PNV: "Badira mehatxu egiten duten editorialak."

Punto y Hora: "Zeintzuk?"

EAJ-PNV: "*Enbata*-n gauzak agertu dira…"

Monzon: "Bada hemen *Enbata*-ren ordezkaririk? Norbaitek badaki zerbait? Inor ez. Beraz, akusazio horiek ez dute balio."

ETA (m): "Hemen guk ez dugu amore eman besterik egin; ezin da esan presio egin dugunik, ezta gutxiago ere, proposamen bat egin dugu asko amore emanez, eta EAJ-PNVk beste zerbait proposatu nahi badu, bada, egin dezala, eta bestela, argi utzi nahi dut, eta 40 urteren ondotik eman den aterabide bateratuaren hausturaren erantzule bakarra bera dela. Ez diezagula errua besteoi egotzi, argi da-eta kontua zein den."

Monzon: EAJ-PNVrekin aparte mintzatzea eskatu du. Onartu dute. Elkoro ere bertan egon dadila proposatu die, baina ez dute nahi. (1. oin-oharra)

Monzon: "Atsekabe handiz esan behar dut ez dagoela aterabiderik, hartutako erabaki baten mandatariak dira eta deus gehiago."

(EAJ-PNVko ordezkariak) erretiratu dira.

ETA (m): "ESB, EKA, EAE-ANV eta ESEIren erabakia falta da."

Bergarako alkatea: "EAJ-PNVrekin lan gehiago egin behar da, zuzendaritzako jende gehiagorekin egon behar da."

Monzon: "Nik uste dut, ahalegin guztiak egin direla."

EKA: "EAJ-PNVren erabakia eragin handiaren pean hartua izan da, beren ordezkariek hemen esan dutenaren arabera. Nola aurkeztu zaizkie gauzak mehatxu gisa hartu dutenerako? Elkororen proposamena interesgarria dela uste dut."

ETA (m): "Ezin zaie denbora gehiago eman."

EKA: "Beren erabakiari dagokionez, gertatuak gertatu, jarrera bat edo bestea hartzeko atribuziorik ez du."

ESB: "Astebete barru da beren kongresua, eta zain egon behar da", izan ere, zatituta daudela dio. "Ez litzateke gauza bera fronte abertzalea egingo balitz, EAJ-PNV gabe, noski, epe labur, ertain edo luzera erabakiak hartuko lituzkeen frontea", eta aurreratu du hori gertatuko balitz, erakunde militarrek ardatz horren menpe egon beharko luketela.

ETA (m): "Honek asteak eramango ditu, eta aurrera diezazuket, mendekotasun horrek jardun armatua utzi beharra esan nahi badu, jardun soilik politikorantz pausua emateko, erantzuna ezezkoa izango dela. Oso ongi aztertu beharko litzateke."

Punto y Hora: "EAJ-PNV higiezin dago, baina bere aurkako salaketa bat ateratzen bada, Gobernuak eskuak igurtziko ditu eta herriak bozka emango dio, ez baitu izango beste nori eman…"

ETA (m): "Orain Gobernua erradikalak likidatzen saiatuko da EAJ-PNVren bidez, eta honek badaki. Nahiz eta posturaz alda dezakeen, baina nahiz eta hori egin, beti izango da kameleoia, eta ez diogu utziko. Egun, ardura bere gain hartu behar du, eta beraz, salatu beharra dago, eta herriak jakin dezala."

Monzon: "Nik ESBren aterabidea soilik ikusten dut."

ETA (m): "Fronte bat ez da egun bakarrean eztabaidatzen, eta gaur parean dugun arazoa konpondu behar dugu. Hori konpontzea oinarri ona litzateke eta fronte hori sortzen asko lagunduko luke."

ESEI: "Nire postura EKAk duen bera da. Ez zait ongi iruditzen fronte abertzale partzialak egotea, ezen ez gara gure ahultasunaren kontziente. Hemen ez gara hauteskunde kontu soil bat eztabaidatzen ari, hauteskun-

---

1. oin-oharra: Monzon EAJ-PNVko kideekin bildu da. Euren ondorioak amaituta, bilera orokorrera batu da.

deak bai ala ez, hileetako kontua baita. Hemen herriaren bizitza politikoaren kudeaketaz eztabaidatzen ari gara. Nork zuzentzen du? Alderdi politikoek, alkateek, erakunde militarrek, fronte batek?"

ETA (m): "Bai, ahultasun horretaz jabetzen gara, baina hemen Madrilek nahi duen guztiari bai esan ala ez erabakitzen ari gara. Gu ez gara kudeaketa politikoan sartzen, noski, argi dagoenez, baina borrokatu bai, borrokatuko gara, eta geure iritzia agertu. Horretarako gaude hemen."

Bergarako alkatea: "Eta EAJ-PNV gabe ezin da akordio batera heldu? Nik uste dut lerro koherente bat bila daitekeela. Pentsatzen duguna egin daiteke EAJ-PNV gabe ala ez?"

EKA: "Konpromiso bateraturik gabe, eta hori ezinezkoa da jada, bihar arte ezin dut ezer esan nire alderdiaren izenean."

EHAS: "Bihar arte zain egon liteke itxaropenik badago, baina gero akordio bateratu bat bilatzeko egin diren ahaleginak kontatu behar dira. Manifestu kronologiko bat idatzi behar da, eta EAJ-PNVk hautsi duela azaldu. Hori litzateke lehen egintza bateratua."

Bergarako alkatea: "Datorren astelehenean bil gaitezke fronte autonomiko bat eraikitzea pentsatzeko?"

EIA: "Bai, baina hori hauteskundeetan parte hartu ala ez erabakitzearen menpe dago."

ESB: "Baina nik, atea igaro baino lehen, atzean zer dagoen jakin nahi dut."

ETA (pm): "Egoera hasierako bera da, ETA Militarreko kidearen proposamena ez da onartu, eta beraz, desagertu egin da. Eta orain, (maiatzaren) 24an erretiratuko gara eta abstentziora igaro. Gainerako erakundeek pentsatzeko eta KASekin erretiratu ala ez erabakitzeko denbora dute."

Monzon: "Arazoa desbideratzen ari da, hauteskundeez bakarrik ari gara, eta ez gara ohartzen borrokan dagoen herri bat gidatu behar dela."

Punto y Hora: "EAJ-PNV aurkeztuko bada, besteen bozak bereganatuko ditu."

ETA (m): "Bozek ez dute axola, horiek alderdikeriak dira, hemen inporta duena herriak bere eskubideak lortzea da."

ESB: "EAJ-PNVk asko bildu dezake, eta EAJ-PNVk eskuartean botere handia duela blokeatuko da egoera."

EHAS: "Hori teorikoa da, alderdien eskema mentalekin egiten dugu lan, ez EAJ-PNVk, ez PSOEk, ez PCk, ez dute ezer egingo estatutuaren alde. Herria borrokan bada soilik izango dira zerbaiten ordezkari, baina alderdi bezala ez dute hori lortuko."

Punto y Hora: "Aterabide bakarra orain jardun armatua da."

ETA (pm): "EAJ-PNVrengadik zatitzea lortu badu Gobernuak, ez dezala gainontzekoak zatitzea lortu, horrela, EAJ-PNVren aurrean indartsu ager ahal gaitezen."

ETA (m): "Herria gutxiesten da, nahaspilatuta dago alderdiek ez dutelako hauteskundeen arazoari behar bezala aurre egiten jakin, balantzaka ibili dira eta zalantza handiak izan dituzte. Hala ere, herria borrokan ari da eta aurpegia eman du kalean etengabe. Ezin dugu halako beldurrik izan, EAJ-PNVk jendea bereganatuko du, baina ez du eraginik borrokan ari den herriarengan eta alderdiek zerbait argiro esango balute, irmo eta indartsu, herriaren zati handi bat eurekin joango litzateke."

Monzon: "EAJ-PNVri indartsu gauden sentsazioa eman behar diogu."

ETA (m): "Guk ezin dugu beraiek berriz bildu arte itxaron."

EIA: "Horretan arrazoi du Monzonek, baina horretarako irmotasuna erakutsi behar dugu gainerako erakundeok."

Bergarako alkatea: "EAJ-PNV oso ongi ohartzen da EKA, ESEI eta ESB zalantzan daudela eta haiekin joan daitezkeela."

EKAk, ez aurrera ez atzerako egoera ikusirik, ondoko proposamena egin du bere izenean: "Hemen bildurik diren alderdi politikoek, ekainaren 1ean, legez eta juridikoki, beren hautagaitzak erretiratzeko konpromisoa hartzen dute. Konpromisoa sinatzen den unetik (edo hilaren 24tik) abstentzioaren aldeko kanpaina hasiko da ekainaren 1a arte, amnistia eta askatasun demokratikoen baldintzapean, eta hortik aurrera, abstentzioaren alde egingo da, besterik gabe. Erakunde militarrak ez dira ezertara engaiatzen."

ETA (m): "Akordio hori erdiesten bada, EAJ-PNVri ultimatum gisa azaldu behar zaio, ezin da negoziatzen jarraitu, zeren EAJ-PNVk eman dio herriari bere norabidearen berri, eta guk ez. Hori gure kaltetan da, izan ere, nahasmena areagotu baino ez da egiten. Ultimatuma eman behar dugu."

> Erantzuna hurrengo astearterako ekartzea erabaki dute, baita herriari jakinaraziko zaion komunikatu baten zirriborroa egitekoa ere.

BOSGARREN BILERA (1977-05-17)

Erakunde politikoen bilera

> Bertaratuak: ESEI, EAE-ANV, ESB, EHAS, EIA, LAIA (bai), ETA (pm), ETA (pm)', ETA (m), Alkateen Taldea eta Monzon.
>
> Gertakariak aipatu dira, istilu asko izan dira, eta gaur hasi dira ahultzen.

Oiartzungo alkatea: Iragarri du Madrilen 30.000 langile Euskadirekiko elkartasunez greban daudela, eta Bartzelonan, 50.000 pertsonako manifestazio bat egin dutela arrazoi bera dela eta.

ETA (pm): ELA, UGT eta CCOOren estiloko komunikatuak salatu ditu, euren burua Euskadiren ordezkari moduan agertuz eta, hauteskundeetarako, lasaitzeko deia eginez.

ESB: Adierazi du Nafarroan hainbat erakundek komunikatu bat atera dutela errepresio-indarren jarduna gaitzetsiaz eta greba orokorrerako deia eginez. Baina ez du inolako oihartzunik izan egunkarietan. ETA Politiko-Militarrarekin ados dago, zenbait komunikaturi oihartzun handia eman zaie (baita telebistan ere), eta, aldiz, beste batzuk estaltzen saiatu dira.

Bergarako alkatea: "Alkateek EAJ-PNVrekin egindako kudeaketek ez dute arrakastarik izan, beren posturari eusten baitiete", eta erantsi duenez "EAJ-PNVk ez du gurekin egoteko interesik."

EKA: Gertatua ikusita, eta batasunean oinarrituz, izan ere, Euskadin indar handia izan dezake presio-erakunde gisa, hauteskundeetan ez parte hartzeko erabakiaren berri eman dute. Ez dira hautagaitzak erretiratzeko ezarritako (maiatzaren) 24ko datarekin ados, beren ustez abstentzioaren aldeko lana hauteskunde kanpainan bertan egin behar da. Beraz, beren hautagaitzak ez

dituzte azken eguna arte, hau da, (ekainaren) 6a arte erretiratuko.

EAE-ANV: Ezin izan dute erabakirik hartu, alderdiaren baitan bi iritzi baitituzte: batzuek abstentzioaren alde egin nahi dute gaurtik beretik, eta besteek, parte-hartze baldintzatuaren alde egin nahi dute, hau da, aurkeztu bai, baina amnistia eta askatasuna eman ezean, ez Parlamentura joan.

ESB: Hauek ere ez dute erabakirik hartu, itxaron egin behar dute; (maiatzaren) 18an bilera dute, eta bertan erabakiko dute aurreko kongresuko jarrera bera mantendu, amnistiarik ez bada abstentzioaren alde egitea alegia, edo beste aparteko kongresu bat egin hurrengo igandean eta orduan erabaki.

ESEI: Bilera atzeratzeko eskatu du. Esan du ezin dela bilera egin bakoitzak berearen berri eman arte. Egoeraren azterketa egin eta gero erabakia hartu dute, baina ez omen dute horren berri emango bilerari ez baitio inongo argirik ekartzen.

ESB: Eurekin bilera bat egiteko eskatu dio KASi, hauteskundeetara joan ezean jarraitu beharreko hautabide bat ikertzeko, hau da, zer datorren ondoren.

ESEI: "Ez da garbia denei entzun ostean hartzea erabakia."

ESB: "Zergatik ez da ba garbia izango dudak eta konpondu ezin diren barne-arazoak badaude?"

ETA (m): ESEIri zuzendu zaio: "Gaur erabaki baten berri emateko konpromisoa hartu zenuten zuek, baina…"

ESEI: Ez dute bileraren teknika onartzen, umotzea behar da erabakitzeko. Ordura arte esaten aritu diren bezala parte hartzea erabaki zuten eurek kongresu orokorrean.

Bergarako alkatea: "Erabaki hori alda daiteke ala ez?"

ESEIk ez du erantzun.

Bergarako alkatea: 57 udaletxek parte hartu duten bilera batean, beren postura berretsi dute, (maiatzaren) 24an dimisioa ematekoa, alegia. Gainera, konfiantzazko boza eman diete bilera hauei.

EHAS: KASen izenean mintzatuz, iragarri du beren hautagaitzak gaur arratsaldean bertan erretiratuko dituztela, eta arratseko 20:00etan prentsaurrekoa egingo dutela Bilbon, herriari jakinarazteko ez dutela hauteskundeetan parte hartuko. Hautagaitzak lehenago erretiratzeko arrazoia, egindako ituna da, ezin dira zain egon, ezen bestela, KASekoak ez diren eta itunean dauden erakundeek aurrera jarraitu ahal izango zuten eta beren hautagaiak 'Euskadiko Ezkerra' itunean aurkeztu.

"Pertsonalki esan nahi dut onartezina dela oraindik ere umotzeaz jardutea, ez dut inor salatu nahi, baina hauteskunde-eguna gainera datorkigu, eta ezin da aldatu eta nahierara atzeratu."

EIA: KASen ustearekin bat eginaz, EKAri bere postura eskertu dio, KASekin funtsezko akordio puntu batera heldu baita hauteskundeetan ez parte hartzeko.

"Ezin gara erabateko akordiora iritsi, ezen hauteskundeetan parte hartu nahi duten beste talde batzuekin dugun itunak baldintzatzen gaitu."

ESB: "Beraz, bien arteko ezberdintasuna da KASek hauteskunde-kanpaina erabiltzeari uko egin diola, eta EKAk ez."

EHAS: "KASek hauteskunde-kanpainari uko egin dio, baina ez abstentzio-kanpainari. Pentsatuko du kanpaina nola egin, izan ere, hainbat gauza eta mitin prestatu ditu jada."

Azken gertakarien aurrean ezker abertza

leak zer iritzi duen azaltzeko komunikatu bat argitaratzea aipatu da, baina baztertu egin da hauteskundeetarako akordiorik ez dagoela ikusita.

ESEI: "Argibideak falta dira, anbiguotasunaren arazoa hor dago oraindik."

EHAS: "KASek gaur azalduko dio bere postura herriari, hemen gertatu denaren kontakizun kronologikoa egingo dugu, bilera hauen arrazoia azaldu behar zaio herriari. Bestalde, beste berri bat ere bada, ez dakit badakizuen: Burgosko Prozesuko bost lagunen estradizioa, heriotz-zigorra ordeztuta, hau da, denak, Izko izan ezik."

ETA (m): "Onartezina da egun Euskal Herrian bizi dugun egoeraren aurrean egiten duena baino gehiago ez egitea Gobernuak."

ETA (pm): "Alde on bakarra da herriarentzat moral-injekziotxo bat izan daitekeela, eta bere borrokaren fruituren bat ikusten duela."

ETA (pm)': "Ez, zeren Belgikan dauden 5 preso dira manifestazioetako 7 hildakoren parean."

ESB: "Beroan hartutako erabakia da eta hori beti da ahultasunaren erakusle."

EHAS: Hauteskundeei begira, esan nahi du ez dela amnistiarik izango.

ETA (m): "Ez da hain beroan hartutako erabakia, izan ere, zerbait esan zioten Suarezekin bildu zen batzordeari; erabaki horretan garrantzitsua da Gobernua aztertzea, hori egin behar dute alderdi politikoek, horrek esan nahi du Gobernu honek ez duela ezer ematen, ez herri guztia kalean dela, ez herri guztiak armak eskuetan dituela, ez Parlamentuan, ez inon. Zenbait alderdik paretaren aurka egingo dute egunen batean."

Monzon: Berriz ere abstentzioaren alde egin du eta gehiengoak horren alde egin dezan ahaleginak eta bi egingo dituela adierazi du.

ESEI: ORT, PC, PSOE eta abarrei buruz galdetu du.

EHAS: "KAS ahaleginduko da alderdi gehiago bere posturara erakartzen, baita pertsona ospetsuak ere."

ETA (m): "Erakunde horiek parte hartzearen aldeko postura erakutsi dute, iritziz aldatzen badira, beren kameleoi-jarrera erakutsiko lukete. Alderdiaren interesak herri-mobilizazioen aurretik jarri dituzte, salatu egin behar dira, zeren herriaren morala babesik gabe utzi dute."

Ondotik, elkarrizketa hauek nola pasatu diren azaltzen duen idazkia irakurri dute, eta zenbait aldaketa egin ostean, onartu egin dute.

ETA (pm): KASen prentsaurrekoan abstentzioaren alde dauden taldeek, EKA eta Alkateak kasu, KAS beraz gain, sinaturiko komunikatu bat ateratzea proposatu du.

Bergarako alkatea: "Ezin dugu hori egin bloke bateraturik ez baita. Gure aldetik, dimisioa aurkezteak zutik darrai, baina abstentzioaren aldeko kanpainarik gabe, izan ere Alkateen artean hauteskundeetan parte hartuko duten erakundeetako militanteak badaude, eta ezin zaie ezer eskatu. Pertsona taldea gara, ez alderdi politikoa."

Ez dute abstentzioaren alde daudela esateko aginpiderik ez bada hemen gaudenon arteko postura bateraturik, hau da, nahiz eta EAJ-PNV gabe izan.

ETA (m): "ESEI ez da masa-erakundea, ez pertsona taldea, alderdi politikoa da, baina postura bat ekarri behar zuen."

Monzon: "Falta diren hiru erakundeek abs-

tentzioaren alde egin dezatela interesatzen zaigu, besteak beste, abstentziora dei egiteko komunikatu bat ateratzeko."

ESB: (Maiatzaren) 23rako, astelehena, eman dezake iritzia.

EAE-ANV: (Maiatzaren) 19rako, osteguna.

ESEI: Gainontzekoek esaten dutenean.

EKA: "Garrantzitsua da zeren Alkateen erabakia hiru hauen jarrerak baldintzatua da."

EAE-ANV: Parte hartzea erabaki du.

ESB: Parte hartzea erabaki du.

ESEI: Parte hartzea erabaki du.

(Maiatzaren) 23an, astelehena, biltzea erabaki dute.

SEIGARREN BILERA (1977-05-23)

Euskadiko erakunde politikoen bilera (azkena?)

Bertaratuak: EKA, EHAS, LAIA, ESEI, ETA (pm), ETA (m), Alkateen ordezkaritza, Telesforo Monzon eta, geroxeago, ESB.

EAE-ANVk telefonoz deitu du ezin dela etorri esanez.

ESEI: Parte-hartzearen aldeko jarrera berretsi dute, nahiz eta asko estimatzen dituzten erakundeekin bat ez etorri. Amnistiaren arazoa, abstentzioari dagokionez, indar guztiena zen, gutxienez abertzaleena, baina gauzak daudenean egonda, hau da, abstentzioaren alde egingo duten erakundeek ez dutela nahikoa presio egiten, uste dute ez dela metodorik egokiena, eta beraz, adierazitakoaren alde egingo dute.

Eurek Parlamentuan parte hartzeko baldintzak jartzea pentsatzen ari dira.

KASen izena zikintzeko kanpainan ez direla sartuko ere esan nahi du, nahiz eta politika ikusmolde ezberdinak izan, izan ere, haiek KASekoek baino baliabide gehiago baitute.

KAS eta ETA: Abstentzioaren aldeko jarrera berretsi dute.

EKA: Haiek ere ez dira jarreraz aldatu, baina ez daki gertakariek beren jarrera aldaraz dezaketen. Bilbon igaro den bilera baten berri eman du; bertan ondoko hauek parte hartu dute: EAE-ANV, EAJ-PNV, PSP, PC, PSOE, EHAS, EKA, CCOO, USD eta lantokietako eta eraikuntzako ordezkariak. Bilera horretan EAJ-PNVk esan du Amnistiaren Aldeko Astea (zeinetan hildakoak eta abar izan diren) alferrikakoa izan dela, Gobernuak presoak askatzeko asmoa baitu. "Ni hitz horien lekuko naiz", esan du, "esan diet ezin dela gutxietsi aste hori, ezta gutxia-

go ere, izan ere, Madrilen izan zen batzordeak argi utzi baitzuen Suarezen arabera ez zela amnistiarik izango, nahiz eta, borondate onaren erakusle, lau edo bost preso askatzeko asmoa zuen hauteskundeen aurretik, eta, gainera, esaterakoan engaiatu gabe. Erakunde guztiok komunikatu bateratu bat ateratzea ere pentsatu genuen, baina EAJ-PNVk ez zuen onartu eta PC, PSOE eta PSPk alde egin zuten."

EHASek EAJ-PNVri erantzunez argi esan zuen: "Gobernuak ez zuela amnistia emateko asmorik, soilik esan zuen presoek graziaeskariekin eta abar laguntzen bazioten, zerbait egin ahal izango zuela, baina ez denak atera, Carrero eta Izko sumariokoekin ezingo zuela. Ateratzen badira aste horrengatik izango da, batez ere."

Monzon: "EAE-ANVk Suarezi esan zion presoak Gobernuaren bahitu gisa mantentzen zituela eta Suarezek onartu zuen, EAJ-PNVk ez zuen erantzun hau esan zenean, eta orain…"

Alkateak: "Elkoro Martin Villarekin egon da eta bere arabera, amnistiaren gaia ez zegoen Ministroen Kontseiluko gai-ordenan." Bere posturari dagokionez, amnistiaren gaia ez dute kartzelatik ateratzea baino gehiago tratatu. Elkorok aurreratu du hilaren 24an ez dutela dimisioa emango, baina ezin du gehiago esan ez baitira bildu.

ETA (m): Alkateei zuzenduz: "Esan duzue (maiatzaren) 30a arte zain egongo zaretela eta egun horretan ateratzen ez badira…, baina (ekainaren) 7rako aterako direla hitz eman dizuete, eta ateratzen ez badira…"

Alkateak: "Bai, bai, pentsatu beharko da."

ETA (m): "Promesa hori ez da batere garbia, eman duten zerrendan jendea falta da, Eva Forest ez dago, gu eta ETA Politiko-Militarra ez onartzeko ados geunden."

Monzon: "EAE-ANVk telefonoz esan du hauteskundeetan parte hartuko dutela, baina ekainaren 16an oraindik presorik badago kartzelan, ez dute Espainiako Parlamentuan parte hartuko hautagai gisa, baina bai Europako erakundeetan."

EHASek eta Monzonek entzun diote EAE-ANVri hori esaten telefonoz.

EHAS: "Horrek ez du baliorik idatziz eta publikoki ematen ez bada, zeren gero baldintzak alda daitezke eta, ondorioz, aurkeztea beharrezkotzat jo."

Monzonek, hitzalditxo bat egin du eta hauek esan ditu, besteak beste: "Egoera hau espero nuen; bilera hauetarako gestioak egiten hasi banintzen ere, porrot egin dudala aitortu behar dut, baina dena den, zatiketa hau Madrildik datorrela ziur naiz; pertsonalki, datozen egunen beldur naiz, euskaldunen arteko gerra edo horrelako zerbait gertatuko da, nire ustez, kontzientzia arazoa da, eta gainera, beste arazo bat ere badago, une honetan ez dakit zein beste bide har daitekeen, baina ororen gainetik, unerik larrienean eta asmatzeko segurtasunik gabe, nik diot ez naizela eusko gudariengandik urrunduko, eta ez ditut bakarrik utziko; nik eman diezaiekedan itzala ematen jarraituko dut, eta gudariez ari naizenean presoez ere ari naiz, ez dut bereizketarik egiten."

ESB: Bezperan egindako kongresuan, hauteskundeetan parte hartzea erabaki zuten, nahiz eta Gobernuak egin nahi duena ez den amnistia (erbesteratzeak), horrek jendearengan eragin sikologiko handia izan duela pentsatzeko datuak dituzte; Alkateek ez dimititzeko jarrerak ere alderdiaren oinarriarengan eta herriarengan eragina izan duela esan du. Bozketa bidez hartu dute erabakia: %70 parte hartzearen alde agertu da, eta %20 abstentzioaren alde.

ESEI Telesfororekin ados dago aurrean dugun arazoa oso delikatua dela dioenean, eta

adierazi du: "Denak kontziente bagara gure arazoa Madrildik datorrela, bakoitzak horren arabera joka dezala eta bere propaganda egin dezala, baina besteak errespetatuz. Guk ez dugu bat egingo KASi aipua kendu nahi dioten komunikabide eta indar politiko handiekin, alderantziz, salatu egingo ditugu."

Monzon: "Argi gelditu behar da ez dela mehatxurik egon."

ESEI: "Hori ez da inoren asmoa."

Monzon: Egoki iriztean batzorde hau berriz deitzen ahal duen galdetu du.

Denak ados.

I. ERANSKINA

Adolfo Suarezekin bilera

Madrilen bildu ginen, bakoitza bere aldetik: Pujana (EAJ-PNV), Solagaistua (EAE-ANV), Iñaki Aldekoa (ESB), Santi Brouard (EHAS) eta Monreal (ESEI), azken honek lagundu zuen sarrerako agiria egiten, Elkoroz gain. EKA, EAJ-PNV, EAE-ANV, Eusko (Sozialista Biltzarrea), LAIA, EHAS, ESEI eta EIAren ordezkaritzan, paperean antzinatasunaren arabera ezarriak.

Pujanak, idazki bat ekarri du, dioenez trenean idatzia, eta Elkorok ere bat ekarri du ideien ohar gisa. Esango denari sarrera egiteko irakurriko den agiriaz gehiegi eztabaidatu da.

Lan-mahaia hasi baino lehen, Elkoro (telefonoz aipatu zidan bezala) kexu agertu da *Hoja del Lunes de Bilbao*-ri infiltratutako gure bileren berri zehatzei buruz. Infiltrazio hori ikertzea adostu dute.

Pujanak ordezkaritza txikia duela ere esan du denen aurrean. Pujanak bere burua defendatu du esanaz EBBko lehendakaria dela eta udal-mahaietan Arzallusek eta Ajuriagerrak baino bozka gehiago izan zituela. Elkorok berretsi du hori horrela izanik ere, gutxi dela.

Irakurriko den agiriaz eztabaidatu dute, nik uste gehiegi. Batasun sentsazioa emateaz hitz egin dute, eta Elkorok hitz egingo duela.

Atean hartu gaituzte identifikatu eta arrazoiak eman eta gero, atzerapen apur batekin, eta Suarezengana pasa gaituzte. Bulegoan, bera bakarrik, bere idazkari eta koinatuak bakoitza nor garen eta zein alderditakoak galdetu digu.

Suarez, itxuraz jator eta gutako bat oraindik alderdi ez legeztatu batekoa dela jakitun. Elkorok papera irakurri du eta esan du, irakurri gabe, benetan zerk eraman gaituen hara. Euskadiko bakeaz kezka adierazi du, amnistia eta askatasun demokratikorik gabe ezinezkoa izango dela. Esan du alderdi batzuk erretiratu egingo direla, Alkateek dimisioa aurkeztuko dutela eta ETA Militarrak ekintzak hasiko dituela.

Jakitun egin dute eta papera ez jasotzat duela esan du (ez dakit ongi zergatik), eta hizketan hasi da eta denak bi ordu iraun du.

Bere zailtasun guztien berri eman digu, nahi duela baina ezin, boterearen zati bat baino ez duela, eta ez beti gainera, baduenean Erreforma Demokratikoa aurrerarazteko erabiltzen duela, orekaren sokan dagoela beti (dena amaitzean, zirkuan atera ahal izango du bizimodua), futbola atsegin duela, baina bere taldean, bostek aurkariaren alde jokatzen dutela. Baina berak erreforma hasi duela eta erreforma egin egingo dela. Espainiak bakarrik ez, Europak ere interesa baduela; Espainia nazioarteko espioitzaren eta terrorismoaren muina da; hil egin nahi dutela, baina berak segitzen duela.

Hau da ondorioa: ezin ditu denak orain atera, nahi duela, baina lepo gainera salto egingo lioketela. Behar besteko 'keinu' bat egiten saiatuko dela 4 edo 5 garrantzitsu atereaz –Mario Onaindia, Uriarte… aipatu ditu–, eta gainontzekoak hauteskundeak igaro ostean.

Kartzelaratuek lagun diezaiotela, edo grazia edo beste herrialde batera estraditatzeko eskatuaz; horrek gauzak erraztuko lizkiokeela.

Askatasun demokratikoei buruz, erabil daitezela, independente gisa, berari esan gabe, isileko baimen bat bezala, paperik gabe. Askatasun demokratikoak gutxi azpimarratu dira.

Berak egin nahi duela. Irudimena erabili behar dela ultrekin ez topo egiteko.

Dena oso normal, baina nire ustez ez dugu lortu ongi transmititzea eta, batez ere, ez diogu Euskadiko klima psikologikoa kutsatu.

II. ERANSKINA

Xibertako ordezkaritzaren gutuna Adolfo Suarezentzat

GOBERNUKO PRESIDENTE JAUNA:

Ordezkaritza honek, Euskal Udalen Mugimendua delakoaren eta ondoko alderdi politiko abertzaleen ordezkari gisa: Eusko Alderdi Jeltzalea (EAJ-PNV), Eusko Abertzale Ekintza (EAE-ANV), Euskalerriko Karlista Alderdia (EKA), Euskal Herriko Alderdi Sozialista (EHAS), Euskal Sozialista Biltzarrea (ESB), Euskadiko Sozialistak (ES), Langile Abertzale Iraultzaileen Alderdia (LAIA), Euskal Iraultzarako Alderdia (EIA), Eusko Sozialista Elkarte Indarra (ESEI), zuri, kezka sakon eta larriarekin ordezkatzen ditugun guztien sentimendu zaurgarriaren berri ematera gatozkizu, egun oraindik euskal presoak eta erbesteratuak baitaude.

Zuk, Gobernuburutza eskuratu eta herriaren aurrean esan zenuen hitzaldian baieztatu zenuen zure kudeaketa publikoaren funtsezko zeregina herriari burujabetza itzultzea zela. Hurrengo ekainaren 15ean egingo diren hauteskunde orokorrak deituta gauzatu du Gobernuak itzulketa hori; deialdi horrek boterea salbuespen-bideetatik agertu eta gauzatu den aldi politiko luze bat itxi nahi du.

Denek batera adierazten dugu salbuespen politikoko aldi luze hori gure herriak berezi-ki pairatu duela eta, horrenbestez, erresistentziako erantzun naturalekin erreakzionatu behar izan duela.

Aurreko boterearen eta, hain justu ere, boterea herriari itzultzea eskatzen zuten hiritar sektoreen arteko oposizioaren ondorioz, probokatutako egoerak eta gertakariak jazo ziren eta epaitegiek delitutzat kalifikatu eta delitu legez zigortu zituzten, salbuespeneko delitutzat gainera.

Gure herriaren iritziz, botereak jarrera gerlagilea du eta aurreko salbuespen-egoerarekin bat egiten du, presoak kartzelan eta erbesteratuak urrun atxikitzen dituenean.

Salbuespen-egoeratik demokraziara igarotzeko iraganeko arrastoak desagerrarazi eta izpirituak berehala baketu behar direla uste dugu. Ez bata ez eta bestea ez dira gertatuko Euskadin presoak eta erbesteratuak dauden bitartean.

Zuk eta zure Gobernuak, hauteskunde-prozesu bati hasiera emateko, egin dituzuen esfortzuak eta gainditu behar izan dituzuen zailtasunak, hauteskunde-kanpainako aldia ireki baino lehen preso politiko guztiak askatzeko eta erbesteratuak beren etxeetara itzuliko diren itxaropena pizten dute gugan, izan ere, horrela bakarrik sortuko da kontsulta demokratikorako behar den baretasun- eta bake-giroa hiritarren artean.

Ez ditugu arrazoi humanitarioak soilik eskatzen, benetako estatu-arrazoiak baizik, eta arrazoi horiek zuk eman berri duzun Amnistia Zabaltzeko Dekretua eskatzen dute.

Azaldutako aurrekari orokorrekin bat etorriz, azaldutako arazoa berehala konpondu beharra gomendagarri egiten duten arrazoi zehatzak jakinarazten eta idatziz uzten dizkizu zuri ordezkaritza honek, era berezian eta ahoz.

Xibertako elkarrizketak (1977ko apirila-maiatza)

Bileren laburpena

Euskal alderdi nazionalen zatiketa larriaren aitzinean, eta urte luzez zirauen kezka bati jarraikiz, Telesforo Monzonek ikerketa gestio zenbait egitea erabaki zuen: abertzaletasun bateratuaren izenean, indar guztien artean jardun adostu batera ailegatzeko aukerarik ba ote zegoen argitzea zen bere xedea, Euskadiren askatasuna eta, zehazki, epe motzera hegoaldeko lau herrialdeei aplikatzeko autonomia estatutua lortzeko helburuarekin. Hau guztia 1977. urtearen hasieran gertatu zen.

Lehen gestioa ETA Militarrarekin egin zuen Monzonek. Elkarrekin bildu ondoren, Monzonen printzipioa ontzat ematea erabaki zuen ETA Militarrak. Ondotik, ETA Politiko-Militarrekin bildu zen, eta erantzun bera jaso zuen. Bai batzuek eta bai besteek baldintza bat ezarri zuten: Koordinadora Abertzale Sozialistako (KAS) indarrek beren oniritzia ematea.

Egun batzuetara, ETAren bi adarrak (Militarra eta Politiko-Militarra) Monzonekin bildu ziren eta adierazi zioten KAS prest zegoela, lehen pausu bezala, EAJ-PNVrekin alde biko elkarrizketak abiatzeko. Gerora, baina, Euskadiko gainerako indar abertzaleei zabaldu beharreko elkarrizketak izango ziratekeen.

Bitarte horretan, Alkateen Taldeko ordezkaritza batek bisita egin zion Monzoni eta indar abertzaleen arteko jardun adostu batera ailegatzeko zuten kezka bera adierazi. Monzonek martxan zeuden gestioen berri eman zien Alkateei, eta hauek beren laguntza osoa eskaini zioten helburu hori lortzeko.

Gestio horiek guztiak EAJ-PNVren Kongresua baino lehenago egin zirenez, gomita jakinarazteko, Monzonek pertsona autorizatutzat zeukanari dei egin zion. Honek alderdiaren erantzuna igorriko ziola hitz eman zion eta kongresua amaitu eta berehala heldu zen erantzuna.

Ondoren, EAJ-PNV eta ETA Militarra bildu ziren: ETAk hurrengo legegintzarako hauteskundeetan jarrera komuna hartzea proposatu zion, eta EAJ-PNVk aukera horri zirrikitu bat utzi zion. Hizketaldi horren ondotik burutu zen KAS-EAJ-PNV bilera, gainerako indar

abertzaleei aldez aurretik horren berri eman eta gero. Monzoni bat-banaka eman zioten proiektu hori burutzeko erabateko adostasuna.

LEHEN BILERA (1977-04-24)

Lehen bilera horretan, ETA, KAS eta EAJ-PNV bildu ziren. Monzonek egin zuen sarreran, indar abertzaleen arteko loturarik eza azpimarratu zuen. Eta ahalik eta lasterren indarren arteko jardun bateratura iristeko herriak zuen beharraz ohartarazi. Hori esan eta alde egin zuen.

Ondoren, bi aldeek hizketaldi hauen helburua finkatu zuten: Hego Euskadiko lau herrialdeentzat autonomia estatutua lortzeko estrategia bateratua; eta baita epe laburragorako helburuak ere, amnistia osoa eta Euskadiko joera politiko guztiak legeztatzea, kasu. Estrategia bateratu hori lantzeko aukera izan ahal izateko, ETAk eta KASek uste zuten aurretik legegintzarako hauteskundeetan egon ala ez erabaki behar zela. Aipatu alderdi politikoek azaldu zuten maiatzaren 15erako ez baziren amnistia osoa eta askatasun demokratikoak lortzen, ez zutela hauteskundeetan parte hartuko eta boikot aktibora pasako zirela. EAJ-PNVk adierazi zuen ez zuela horri buruzko erabakirik hartu, nahiz eta bilera horretan parte hartu zuten bere ordezkariek baldintzarik gabeko parte-hartzearen alde egin zuten. Azkenik, apirilaren 30ean beste bilera bat egitea adostu zuten. EAJ-PNVk bere erabaki ofizialaren berri eman beharko zuen ordukoan, eta gainontzeko alderdi politikoak ere bertan egongo ziren. Hori zen Monzonen planaren bigarren pausua.

Hirugarren etapan erakunde zabal bat sortu beharko zen, soilik erakunde abertzaleek osatua eta garaian Hego Euskadin zeuden alderdi politiko demokratiko guztiak bilduko zituena. "Maltzagaraino heltzeko prest dauden" indar politikoez ari ziren. Azken fronte autonomista horrek, bestelako ordezkaritza kultural, sindikal eta abarrek behar bezala osatuta, Euskadik demokratikoki izendaturiko erakunderik izan ezean, behin-behineko euskal parlamentua osatuko zuen, eta hortik sortuko zen behin-behineko euskal gobernua, Madrilekin parez pare mintzatuko zena.

BIGARREN BILERA (1977-04-30)

Deituak: EAJ-PNV, ESB, ES, EAE-ANV, EKA, ESEI, KAS (EHAS, LAIA (bai), EIA) eta ETA Militarra eta ETA Politiko-Militarra erakunde armatuak.

Bertaratuak: EAJ-PNV, EAE-ANV, EKA, ESEI, KAS (EHAS, LAIA (bai), EIA), ETA Militarra eta ETA Politiko-Militarra.

EIAk bere ausentzia justifikatu zuen eta KASeko gainerako indarrek ordezkatzen zutela onartu zuen.

Alkateen Taldeko batzorde batek ere parte hartu zuen herriaren iritzi-korronte garrantzitsu baten ordezkari gisa; baita Telesforo Monzonek ere, proiektuaren sortzailea izaki.

Bilera hartan, talde bakoitzak legegintzarako hauteskundeetan parte hartzeari buruz zuen

ikuspuntua azaldu zuen, hori guztia amnistia, alderdi politikoak legeztatzea eta autonomia estatutua gaien arabera.

KASek aurreko bilerako iritzia berretsi zuen.

EAJ-PNV baldintzarik gabe parte hartzearen alde agertu zen.

ESEIk adierazi zuen amnistiaren gaia zela herriak planteatu behar zuen gai nagusia, eta arazoa hori lortzeko metodorik egokiena zein zen asmatzea besterik ez zela. ESEIk abstentzioaren alde egingo zuen, indar abertzale guztiek, eta baita demokratikoek ere, hala eginez gero; abstentzio partzialak -ezker abertzalearenak soilik- ez zukeen aski indar presioa egiteko, eta ondorioz, nolabaiteko parte-hartzea bilakatuko zatekeen metodorik egokiena. Nolabaiteko parte-hartzea amnistiaren gaia hauteskunde-prozesuaren leitmotiv bilakatzea izango zen funtsean, eta euskal hautagai guztiek Parlamentua osatzeari uko egitea azken presoa kartzelatik atera eta exiliatu guztiak etxera itzuli arte.

EAE-ANVk ESEIren iritzi bera zuen. EKA baldintzarik gabe parte hartzearen alde zegoen, nahiz eta abstentzio jarrerara pasatzea onartuko zuketen, bertaratutako indar guztiek horren alde eginez gero.

Alkateek (maiatzaren) 24an taldean kargua uzteko asmoa azaldu zuten, egun horretarako ez baziren amnistia osoa eta askatasun demokratikoak lortu.

Alderdi bakoitzak bere jarrera defendatu zuen eta akordioa lortzea ezinezko ikusten zen, eztabaida luzearen ondoren, batetik EAJ-PNVren eta bestetik KAS eta ETAren arteko ezberdintasunengatik funtsean, Alkateen Taldeak eta Monzonek saioa une baterako eten eta parte-hartzaileei proposamen bat aurkeztu zieten, eta hauek aho batez onartu zuten. Hona hemen proposamena bi puntutan laburbilduta:

1. Bertaratutako indarrek osatutako batzorde iraunkor bat sortzea, haustura saihestu eta balizko akordioari atea zabalik uzteko.

2. Bigarren batzorde murriztu bat sortzea, inolako negoziazio-ahalmenik gabe Madrilera joango zena, Espainiako Gobernuari Euskal Herria oso egoera larrira bulkatua zegoela adieraztera, ondokoak lortu ezean: berehalako amnistia eta euskal alderdi politiko guztiek libreki jarduteko erabateko askatasuna, eta beren eskubideen alde biltzeko eta manifestatzeko herriaren askatasuna.

Alkateen Taldeko ordezkari batek hizketaldia hitzartzeko ardura hartu zuen.

Bilera horretan bertan erabaki zen Madrilera joateko ardura zuen batzordea hauek osatuko zutela: EAJ-PNVko kide bat, KASeko kide bat, EKAko kide bat eta gainerako talde bakoitzeko kide bana, eta Alkateen Taldeko kide bat. Batzorde horretako kideek ez zuten beren talde edo alderdiaren ordezkari gisa jardungo, baizik eta indar abertzale guztien ordezkari gisa.

BATZORDE IRAUNKORRAREN BILERA (1977-05-08)

Maiatzaren 8an Bergaran egin zen batzorde iraunkorraren bilera, eta bertan iragarri zuten Adolfo Suarezekin Madrilen egitekoak ziren hizketaldia hilaren 10ean izango zela. Jakinarazi zuten, halaber, Suarezek alderdi ez legeztatuak hartzeari uko egiten ziola.

Horren guztiaren ondorioz, behin betiko batzordea ondoko hauek osatu zuten: Santiago Brouard, Iñaki Aldekoa, Valentin Solagaistua, Iñaki Pujana eta Jose Luis Elkoro.

HIRUGARREN BILERA (1977-05-12)

Hirugarren bilera maiatzaren 12an egin zen. Aurreko bilerarako deitu ziren indar politiko eta kide independente berei egin zitzaien dei. Denak bertaratu ziren, Eusko Sozialistak izan ezik.

Madrilera joan ziren batzordekideek aurkeztu zuten Adolfo Suarezekin izandako hizketaldiari buruzko txostenarekin hasi zen bilera. Hizketaldia nola joan zen azaltzeko erabilitako termino batzuen interpretazioarekiko desadostasuna gorabehera, batzordeko kide guztiek bat egin zuten Espainiako Gobernuak hauteskunde egunerako presoak askatzeari uko egiten ziola adieraztean, eta erregimenaren eskuin-muturreko alderdiekiko, indar armatuekiko funtsean, Gobernua ahula zela argudiatu zuten, eta eskaintzen zuen aukera bakarra, bere borondate onaren adierazle, hauteskundeak baino lehenago preso batzuk askatzeko aukera zen. Gainontzeko presoak hauteskundeak igaro eta gero, eta bera oraino Gobernuko presidente zela, askatuko zituen. Batzordeko kide batek ohartarazi zion euskal presoak bahitu gisa erabiltzen ari zirela Euskal Herriari botererik ez emateko, eta Suarezek onartu egin zuen. Halaber, batzordeak jakinarazi zion maiatzaren 24rako preso guztiak aske eta askatasun demokratikoak errespetatuak ez baziren, alkateek dimisioa aurkeztuko zutela, ETAk erasoaldi militarrari ekingo ziola eta euskal alderdiak abstentzio aktibora pasako zirela legegintzarako hauteskundeetan. Mehatxu hauek ez zutela beldurtzen esan zien, eta nazioarteko laguntza bazuela horiek gainditzeko.

Bildutako guztiak ados ziren: une hartan, Espainiako Gobernuak Euskadirekiko zuen jarrera zehatza eta aurrez pentsatua zen, indar abertzaleen arteko banaketa lortzeko.

Eztabaida hasi zenean ikusi zen bertaratutako indar guztiek beren aurreko jarrerei eusten zietela.

ESBk ez zuen aurreko bileran parte hartu, baina oraingoan adierazi zuen bere helburu nagusia hauteskundeen aurrean jarrera bateratua lortzea zela. Bere bigarren kongresuan erabakitakoaren arabera, hauteskundeetan parte hartzea amnistia osoa lortzearen arabera izango zen, eta, beraz, gai horren inguruan batasuna lortu behar zen. Hori ezin bazen lortu, baldintzarik gabe parte hartzearen inguruan lortu behar zen batasuna. Zernahi, zatiturik aurkeztea baino.

EKAk ohartarazi zuen indar abertzaleen arteko zatiketak larriki eragin ziezaiokeela Euskal Herriari, eta une horietan inongo alderdik ezin ziola horrekiko zuen ardurari muzin egin.

Akordiorik eza eta elkarrizketak une batetik bestera hausteko zegoen arriskua ikusirik, ETA Militarreko kide batek, bere izenean ari zela azpimarratu ostean, ondoko proposamena egin zuen:

1. Ekainaren 8rako eskatutako baldintzak bete ezean, alderdi guztiak beren hautagaitzak juridikoki kentzera eta abstentzio aktibora pasatzera engaiatzea.

2. Erakunde militarrak erasoaldi armatua ekainaren 8a arte atzeratzera engaiatzea.

3. Proposamena onartuz gero, hartutako konpromisoa publikoki jakinaraztea eta hauteskunde-kanpainako puntuetako bat izatea, maiatzaren 24tik aurrera.

Alkateek, EAE-ANVk eta ESBk eman zioten babesa ekimen horri. Gainerako erakundeen ordezkariek adierazi zuten ez zirela nor horri buruzko iritzirik emateko. Bestalde, ETA Militarreko gainerako ordezkariak eta EHASeko ordezkaria aurka agertu ziren.

EAJ-PNVk adierazi zuen elkarrizketak ez zirela hauteskundeetan parte hartzearen inguruan polarizatu behar, parte hartu ala ez aurkako aukerak balira bezala: nahi zuenak parte har zezala, eta nahi ez zuenak, ez. Aitzitik, autonomia estatutua erdiesteko koordinatuta segitu behar zuten.

ETAk eta KASek, ordea, aurkako iritzia zuten: estatutuaz pentsatzen hasi baino lehen, hauteskundeen aurreko jarrera bateratua lortu behar zen. Hori posible izan ezean, batzuk Espainiako Estatuaren aparatuan kokatuko ziren, eta besteak, bazterrean eta aurka. Horrek bide ezberdinetara eramango zituen eta, ia ziur, konfrontaziora ere bai.

Azkenik, eta bilera amaitu aurretik, ondoko komunikatua prestatu zuten argitaratzeko:

> "Alderdi abertzale politiko guztiak eta alkateen taldeko eta talde armatuetako ordezkariak bildurik, gure herriari Euskadiko egoera politiko larriaren berri eman behar diogu. Espainiako Gobernuko presidenteari ere hala jakinarazi diogu, hilaren 10ean, asteartea, informazio-batzordeari emandako hitzorduan.
>
